




Estitxu Lopez hegazkin azafatarekin solasean

03

Duela bederatzi urtetatik hegazkin azafata da Estitxu Lopez beratarra. Ttikitako ametsa izan da azafata izatea, eta bere lanbideari buruz hitz egin dio **t tipi-ttapa**ri.



Gure Kirolen Kluba sortu dute Larretxeatarrek

52

Jende gazteari herri kiroletan erakusteko asmoz, Gure Kirolen Kluba eratu dute Donato eta Patxi Larretxea anaiek. Oronoz-Mugairin duten txokoan aritzen dira erakusten.

2008ko urriaren 30a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



BAZTANEN ETA MALERREKAN

04 Mediku eskasiagatik herri ttikietako kontsultak itxita

deskontuak
DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

AGARA

AGARA kirolak • BERA
%5eko deskontua kirol artikuluetan

Deñe

DEÑE Lentzeria - Mertzeria • LESAKA
%10eko deskontua lentzerian



OSTIZ Zapata-denda • DONEZTEBE
%10eko deskontua

JUAN J. PIKABEA

PIKABEA Arropa-denda • DONEZTEBE
%10 igailza marka batzuetan izan ezik



BIXKIAK Arropa-denda • LESAKA
%10eko deskontua



SANSINENA Tailerra • ELIZONDO
%10eko deskontua olio-aldaketetan

SARIDUNAK:

- 4 liburu (Erein):
Asun Apeztexea (Oronoz-Mugairi)
- Punpalaplan DVD+CD (Aisia):
Rosa Galarregi (Elizondo)
- Txapela Buruan kamiseta:
Miren Josune Iturzaeta (Ariakun)
Xabi Ballarena (Erratzu)
- Kirolez Badakit (Argia):
M^a Karmen Sansinena (Etxalar)
- Rundown-en 2 diska:
Salvador Antsalas (Etxalar)
- Oninart 2 kamiseta:
Nekane Unxion (Legasa)

SENDABIYA 4 sarrera
Luisa Arriada (Elizondo)

AQUARIUM 2 sarrera
Idoia Jorajuna (Bera)

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartelarekin beti irabazten da!

9 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astatekoenetik ostiralera
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58

1 HIRU LIBURU
Kalka eta jergira bitartea • 1000
Karusaketa mundua • 1000
Ere
Lote 1

ekar
fuzioak
www.ekar.com

2 Sagardoaren DVD LIBURUA
Lote 1

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.com

3 Txapela Buruan
KAMISETA
2 Lote

txapela buruan
www.txapelaburuan.com

4 Buruhausgarriak MAHAI JOLASA
Lote 1

mahai-jolasa
www.kastola.net

5 Euskal Artzainak AMERIKETAN
6 DVD
Lote 1

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

6 BI KAMISETA
Lote 1

oninart
kamisetak
oninart
www.oninart.com

ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA 5767 ra



2 LOTE
(lote bakoitzak 4 sarrera)

AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumes.com

Zozketaren parte hartzeke espazio zuzenean 2009 azararen 31era irabazteko denak azararen 13ko akzioaren argitaratzean (Bera, 14azararen 10etara 120K arte) gabeak. Zure datuak ttipi-Hasieraren bitartez gureko dira zuzenean bidaltzen diren bitartez ez dugu zure informazioa beste inon ere erabiltzen. Zozketara edo deskontuetan parte hartzeko deitu 948 63 54 58ra.

DATUAK...

- Bortz urte zituela erran omen zuen lehen aldiz Estitxu Lopez beratarrak azafata izan nahi zuela. Erran eta egin. Gaur egun azafata gisa dihardu lanean.
- Ingelesa ikasten Irlandan eta Londresen ibili ondotik, eta azafata izateko ikastaroak egin eta gero, 20 urterekin hasi zen lan horretan.
- Geroztik bederatzi urte pasatu dira, eta gustuko lana duela aitortu digu. Bere lanari buruz eta hegazkina hartu aitzinetik jakitea komeni diren hainbat xehetasun azaldu dizkigu.



Estitxu LOPEZ *Berako hegazkin azafata*

ARGAZKIA: G. URDANPILLETA

«Hegaldi erosoia izatea eta segurtasuna bermatzea dira gure egitekoak»

Goizalde URDANPILLETA

Zer egin behar da azafata izateko?

Baldintza batzuk bete behar dira. Igeri egiten jakin; ingelesaren maila altua eduki eta altuera aldetik ere guttieneko batzuk bete: emakumeetan guttienez 1,65 metroko altuera izan behar da eta gizonetan 1,70 metrokoa. Bertze froga psikotekniko batzuk ere pasatu behar dira. Horren arabera erabakitzen dute azafata izan zaitezkeen ala ez.

Non egiten dira ikasketak?

Konpainiak base nagusia non duen, han egiten dira: Valentzian, Madrilen, Palma de Mallorcan... Nik 18 urterekin argi nuen zer egin nahi nuen. Banekien ingelesa beharrezkoa zela eta Irlandara joan nintzen. Han bederatzi hilabete pasatu nituen. Handik etorri eta azafata izan eta konpainia batean sartzen laguntzeko ikastaro bat egin nuen. Gero, Londresera joan nintzen. Ingelesa ikasi bidenabar, curriculumak bidaliz segitu nuen eta konpainia batetik deitu zidaten. 20 urterekin sartu nintzen.

Demagun bidaiatzera goazela. Zer egin behar dugu?

Lehenengo fakturatu egin behar da, eta horretarako kontuan hartu behar da fak-

«Hegaldia bukatzean hegazkina goitik beheiti begiratu behar dugu, gurea ez den deus ez dagoela eta zerbait falta ez dela ikusteko. Bonba mehatxuak ia egunero izaten dira konpainia haundietan»

turaziorako tokia hegaldia baino 45 minutu lehenago ixten dela. Beraz, komeni da denborarekin etortzea. Ekipajeari dagokionean, turista edo *business* klasean —klase dotorea— joan, aldatu egiten da maleta kopurua, baina denean gehienez 23 kilo dituzten maletak onartzen dira. Horrez gain, hegazkinean gurekin eramanean ditugun esku-maletak 10 kilo eduki ditzakete gehienez. Beti izaten da maletak galtzeko kezka, baina %99an agertzen dira. Gainera, galdutako maletaren arabera konpentsazio ekonomikoa ere ematen dute. Ez bada agertzen, bertze diru sari bat ere bai.

Txartela hartutakoan kontrolak...

Bai. Adibidez likidoak poltsa gardenetan eramane behar dira, edo botika bat hartu behar bada hegazkinean medi-

kuaren adierazpen bat behar da. Aixturak, nabalak eta horrelakoak ezin dira eramane. Polzien kontrola pasatu eta arku azpitik pasatu ondotik, hegazkin aldera. Segun eta nora zoazen, pasaportea eta bisadoa ere kontrolatzen dira.

Eta zein da azafataren lana?

Hegaldia baino 45 minutu lehenago aireportuan egon behar dugu. Sinatu, gure tripulazioa bilatu eta hegazkinera joaten gara. Han elkarrizketa bat egiten dugu, eta kapitainarekin eta tripulazio arduradunarekin segurtasun neurriak errepasatzen dira. Ondotik, egokitu zaigun segurtasun tokira joan, eta segurtasun ekipoa txekeatzen dugu: oxigeno botilak, ateak, kaputxak... Gero txekeo komertzialak egiten ditugu: bazkaria hor dagoen... Dena prest dagoenean bidaiariak sartzen dira eta gomendio batzuk ematen dizkiegu. Zerbizari bezala ikusten gaituzte, baina hegaldia ahalik eta erosoena izatea eta segurtasuna bermatzea dira gure egitekoak. Hegaldia bukatzean, hegazkina goitik beheiti begiratu behar dugu, gurea ez den deus ez dagoela eta zerbait falta ez dela ikusteko. Bonba mehatxuak ia egunero izaten dira konpainia haundietan.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Medikuak ere, ordu gehiegi sartzen zituztelako eta langile gehiago eskatuz, aspaldi hasi ziren protestan. Argazki honetan medikuak Elizondoko Osasun Etxearen atarian ageri dira, otsailean egindako protesta batean.

Ordezko medikurik ez dagoelako herrietako kontsultak ixten ari dira

MALERREKA, BAZTAN, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIN

Nafarroako landa eremuan osasun zerbitzua bermatzeko mediku eskasia duten kontsultategiak ez dira gutti. Batzuetan larrialdietako zerbitzua osatu ezinik dabilta; bertzeetan, ordea, lehen arreta zerbitzua eskaintzeko arazoak dituzte. Malerreka eta Baztanen kasua da hori. Baten batek baja edo oporrak hartuz gero, ez dute inor ordezkatzeko. Halakoetan, kontsultategiak itxi behar dituzte, gaixoak bertze herri batera mugitzera behartuz. Malerrekan, herrietako beharrak Donezteben biltzea erabaki dute, eta Donezteben hartzen diete kontsulta inguruko herritarrei. Bide beretik, Baztanen ere bertze herri bateko kontsultategira joatera behartuak daude gaixoak. Egoerarekin arduratuak, arazoari aterabidea ematea nahi dute. Malerrekako zenbait udalek, adibidez, mediku zerbitzua bermatzeko exijitu diote Nafarroako Gobernuari. Baztanen ere behin baino gehiagotan jo omen dute Osasun Departamentura. Bertzelako kasua da Goizuetakoa: larrialdietako zerbitzurik gabe gelditu dira, eta larrialdi kasuetan Leitzara joan behar dute, 20 kilometrora. Erabakia, noski, ez da herritarren gustukoa.

Gurutze PIKABEA

Medikuak lanez gainezka, eta gaixoak batetik bertzera. Horixe da egoera. Mediku zerbitzua behar bezala osatzeko langilerik ez dago, eta mediku titularrek baja edo oporrak hartzen dituztenean, kontsulta itxi eta bertze medikuak bereak eta falta den medikuaren gaixoak artatu behar ditu. Bi kupo atenditu behar dituzte. Ondorioak nabaritzen orain hasi badira ere, arazoa ez da oraingoa.

Mediku titularrek astean 48 orduko lanaldia egiteko kontratua dute; eguneko lanaz gain, guardia bat egin behar dute. Gainerako guardiak eta asteburuko zerbitzua egiteko, berriz, bertze mediku batzuk daude, bertzelako kontratuarekin. Orain arte, mediku titularren bat falta bazen, guardia egiten zutenek betetzen zuten hutsune hori. Baina hemendik aitzinera ez. Nekatu dira. Lehertu egin dira.

Martin GARDE**Baztango zinegotzia**

«Arazo honi ez zaio behar den irteera eman. Zerbitzua egokitasunez mantentzeko mediku gehiago behar dira. Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin sei medikuren faltan gaude. Baztango Baztar Nagusietan ere aztertu dugu gaia, eta Udalak egoera aldatu dezan eskaera luzatu dio Nafarroako Gobernuari. Azken batean, guk ahal duguna egin dugu. Gure gaindik dagoen arazo orokorra da, eta Gobernuak du ardurra. Baztan hain sakabanatua dagoen bailara izanik, eta biztanleriaren zati handi bat adinean goiti doala kontuan hartuz, premiazko zerbitzu gehiago ezarri beharko lituzke Gobernuak. Gure zerbitzuak minimoak dira; ez dugu uste kenduko dituztenik»

M. A. PETRIRENA**Iturengo alkatea**

«Garai batean Malerrekako herri guztietan bazegoen medikua, baina kentzen joan ziren. Gaur egun, batzuetan baino ez dago, eta langileria murriztuz azkenean honetara ailegatu gara. Iturenera astean hirutan etortzen da, baina zerbitzu hori ere kentzean daude eta hori da arazoa. Hutsunea herrietan dago, Doneztebek ez du horrelako beharrik ikusten. Gainera, arazoa oraindik okerragoa izan daiteke, eta herrietako kontsultak behin betiko ixteko beldurra dugu. Ez dira alkate guztiak kaleratu dugun bando horren aldekoak, euren herrietan zerbitzua badutelako. Malerrekako alkateak bildu eta adostasun batera ailegatu beharko genuke, gero eskaria luzatzeko».

«Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin sei medikuren faltan gaude»

«Malerrekako herrietako kontsultak behin betiko ixteko beldurra dugu»

Guardia eta asteburuetako medikuak urte aunitzetan, urtean 4.000-5.000 orduz lan egitera ailegatu izan dira, mediku arrunt baten soldatarekin. Zegokienaren hirukoitza baino gehiago lan eginez. Duela bi bat urte, ordea, horrelakorik gehiago ez egitea erabaki zuten, eta Lehen Arretarako Zerbitzua eskaintzeko mediku eskasia orduan hasi zen nabaritzen. Guardietan eta asteburuetan lan egin dutenen mediku kopurua ia bikoiztu egin arren, tokatzen zitzaizkien orduak baino hiru aldiz gehiago sartzen zituztenez, oraindik hutsuneak hor dirau. Medikuek eskasia handia da, baina mediku gehiago kontratatzeak aldi berean, gastu handia eragingen luke.

MALERREKAKOAK DONEZTEBEN

Lehen Arretarako Zerbitzua lau kupertan dago banatua Malerrekako: Doneztebe-Elgorriaga; Sunbilla-Bertizarana; Iturendik Ezkurrarako tartea; eta Donamariatik Saldiasera bitartekoa. Horretarako lau mediku eta pediatra bat daude. Horieta batek baja, oporrak edo baimenen bat hartuz gero, ordezkapenik egiteko ez dute inor. Hala, mediku titular baten faltan, lankide batek bi kupo hartzen ditu, berea eta medikurik gabe dagoenarena. Herrietako kontsultategia itxi, eta guztientzat erdigunea Doneztebe dela iritzita, bertan artatzen dituzte gaixoak. Udalak ere mugitzen hasi dira, eta hainbatek bandoak zabaldu dituzte egoera azal-

duz eta «konponbide bat ematea Gobernuaren ardura» dela adieraziz. Doneztebeko Osasun Zentroan eta herrietako kontsultategietan ere erreklamazio orriak paratu dituzte.

BAZTANEN ERE MEDIKUAK ESKAS

Mediku titularren hutsuneak betetzeko arazoekin dabilta Baztanen, Urdazubin eta Zugarramurdin ere. Baztango Udalera igorritako ohar batean, «sei lanpostu hutsik daudela» diote medikuek. Gainera, Elizondoko zahar-etxeke medikua ere bajan dago eta horko adinekoak ere eurek artatu behar dituzte. Hori dela eta, ondoko herriko medikua, ordu batzuez, medikurik gabe gelditu den kontsultara joaten da. Baina ezinezkoa bada, gaixoek berze herriren bateko kontsultategira joan behar dute. Malerrekako bezala, Lehen Arretako Zuzendaritzak aterabide azkarrik eman ez duelako, medikuek eurek hartutako erabakia izan da.

Baztanen, Arizkun eta Erratzuko kontsultan mediku bat dago eta Oronoz-Mugairi, Irurita eta Urdazubikotan mediku eta erizain bana. Elizondon, pediatra eta berte bi mediku titularrez gain, hirugarren batek lanaldiaren hiru laurdenak egiten ditu. Guardietarako berte mediku bat dago.

Baztango Udalak ere zerbitzua hobetzea nahi du, eta eskutitza bidali du Osasun Departamentura mediku gehiago eskatuz. Baztar Nagusietan ere aztertu dute dagoeneko gaia.

LEITZALDEAN ERE GUSTURA EZ

Azken ia 20 urteotan Goizuetan eduki duten larrialdietako zerbitzurik gabe utzi ditu Osasunbideak Goizueta eta Arano. 1991n Arano eta Goizueta inguru *berrezi* bezala katalogatu ziren, larrialdietako zerbitzuak 20 minutura baino hurbilgora egon behar dutelako eta Leitzara edo Hernanira joateko 20 minutu baino gehiago behar direlako. Geroztik, larrialdietako zerbitzuarekin egon dira herrian. Aurtengo uztailaz geroztik, ordea, bi herri horietako larrialdietako kasuak Leitzan artatzen dira, Goizuetatik 20 kilometrora. Leitzako Osasun etxean mediku eskasia zegoelako hartu zuen erabaki hori Osasunbideak. Baina goizuetarrak ez daude kontent, eta zerbitzua lehengora bueltatzeko kexa formalak biltzeari ekin zioten. Guztira 200 bildu zituzten eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentura bidali zituzten. Gobernuak, bere aldetik, «*lanean segitzen dutela*» erantzun zien. Baina hori ez da nahikoa; herritarrek urtetan eduki duten zerbitzua nahi dute, eta horretarako, sinadura bilketa abiatu dute orain.

ARESON BERRI ONAK

Areson, hilabete honetan zabaldu dute berriro ere medikuaren kontsulta. Behar haundirik sortzen ez zela eta, zerbitzua eten egin zuten bere garaian. Hailere, herritarrek eskatuta berriz ireki dituzte ateak kontsultategiak.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Milder Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odrizola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Rakel Amigo, Irtaxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelare elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sailaren
laguntza jasotzen du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Ongi etorria, udazkena

Honezkeroko egun batzuk pasatu dire etorri zinenetik. Seguraski gutti batzuk bertzerik ez garen ongi etorria eman dizugunak, udazken maitia, jende gehiena oaink zotinka ari baita udajuan delako, opor ondorioa jasateko, edozein xorakeriri buruzko bildumak erosten. Telebista, irrati eta gañerako komunikabideetan ere zuretako erabilgarritasunaren bat bila ari dire, bai udako gehiegikeriak garbitzeko aukera dela, bai ikaseta berriak hasteko... Zuk zerorrek zer agertu, erakutsi eta gozagarririk ez pazenu bezala.

Zalaparta eta poza haundia izaten da uda alletzen denin: eguzkia, berua, udako amodioak, oporrak... Zu alletzearekin, berriz, tristura eguna moztu delako, opor ondorioa, eskola, lanera itzultzia (nik ez dut ikusi gehienak lana udan utzi dutenik, biñi tira...)

Ta bittartin guk, udazkenzale bakanok, poza-rrin, barrendikateratzen zaigun irrifar maltzurra gordetzen dugu burua makurtuta, udazaleek madarikatu ez gaitzaten. Pozik dastatzen ditugu erdi gordeka zure usaia, argia, koloria ta doñuak.

Akabo bero zakarrezko egun luziak, akabo oporretan dagoen jendetzaren harantz-honuntzak, akabo telebistako eguneroko hondartzeri buruzko informazio akiezin ta aspergarriak, operazio bikini buruzko zurikeriak eta abar, akabo.

Ongi etorriak iraileko ta urriko egun epelak, ta lo goxo itteko aproposak

diren gaba frexkuak. Ongi etorriak goiz lañotsuak, gure zokuak itsaso zurriak bihurtzen dituztenak, ta gure mendiek janzen dituzten soñeko ori, gorri, uher eta abar-rak.

Nola ez, ongi etorriak udazken-neguko minigonak, udan lotsagabe erakutsi dena, oain goxoki erdi gordetzen dutenak. Ongi etorriak udazkeneko amodiak!

Ongi juauso gaixuak (jakinduria opa dizuet zuen biziari osorik eusteko), ta zeruan garraxi sakon eta kitzikagarriak egiten dituzten antzara ta lertxunak. Ongi etorria berdin, goiz eta ilunabar eguzkitsutan arbol tartetik txio-txi txio-txi itten duen xoria (barkatu, ez-takit bere izena). Ongi etorriak gaztañak, gaztaña erre ta egosiak, hori bai goxotasuna! Ta nola ez, ongi etorria ximienietako ekia, karririk elizan intzentsuak bezala, usai goxoz ukitzen dituenak.

Ongi etorria su bazterreko goxotasuna, gure arima ta bihotzari begirada bat ematen laguntzen diguna.

Holaxe izan da betitik gure ingurua, zergatik gaur egun hainbertze jende udazkena ta negua gorroto dituenak, sugandilak bezala eguzki beruakin amets itten duena? Ezta izanen ba lan-toki zolotan denbora gehiegi pasatzen dugulako, udazken eta neguak ere baduten eguzki goxoaz gozatzeko aukerarik gabe? Ordun errua ezta udaren azkenarena, guria baizik...

Gora udazkena! Gora bihotzak!

Joanes Akonegi

Ttipi-ttapari:

2008ko irailaren 18an, Ttipi-Ttapak 478. alean, Berako ikastetxei buruz idatzitakoak harritu nau. Agian, Ttipi-Ttapak ez daki Labiaga Ikastola ikastetxe pribatua ez denik, Kooperatiba baizik. Are gehiago, euskarazikas-tea galerazita zegoen garaletan, herriak eta herritarrentzat sortutako eskola.

Bertzerik gabe, eta horrelako akatsak errepikatuko ez direlakoan, nere agurrik beroena bidaltzen dizuet.

Ainhoa
Senper Mazizior
Bera

Erredakzioaren oharra

Ttipi-Ttapa horretan argitaratutako informazioan ez dugu inolako akatsik ikusten. Dirulaguntza deialdia, literaliki, Nafarroako ikastetxe pribatuei zuzendua baitzegoen (hau da, administrazio publikoen jabetzakoak ez diren Nafarroako ikastetxeentzat). Labiaga Ikastolak izenburu hori zuen laguntza deialdia hartuko zuen parte, eta halaxe argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan. Jaki-na, horrekin ez da ukatzen Labiaga Ikastola kooperatiba denik, ezta «euskaraz ikastea galerazita zegoen garaletan, herriak eta herritarrentzat sortutako eskola» denik ere.

Ttipi-Ttapa

Txanponaren bertze alde Etxalarko Usategietan

Etxalarko herria, zerbaitengatik famatua baldin bada, sareen bidez ehizatze moduagatik da. Orain dela hilabete bat denen ahotan zegoen Etxalarko tirozko postuen enkantea. Izan ere, eskopetekin ehizatzen dutenek, beren arrangura erakutsi zuten bi idatziren bitartez arbolek eta adarrek traba egiten zutelako non-bait. Enkantearen egunean eztabaida piztu zen, postuen egoera txarra zela-eta, baina arazoak zituzten postu guztiak hartuak izan dira. Hain txarrak ez dira izan-nen, bada.

Bitartean, usazaleok lan isila eginez, urterotertero zerbait hobetzen saiatzen gara. Aurten Idoikua postua berritu dugu ranpa bat eginez, eta ingurua atondu dugu turistek eta mendizaleek aukera izan dezaten usazaleen lana eta usoen maniobrak ikusteko. Sare inguruan ere banku pare bat jarri ditugu, jendea lasai egoteko.

Urriaren 1ean sareak hedatu genituen. Horrek erran nahi du 12 lagunek usategietara joateko konpromisoa hartu dutela 50 egunez segidan, azaroaren 20a arte hain zuzen. Hauxe da Etxalarko herriaren aberastasuna: sareak eguneroko hedatzea. Erran behar dugu 12 lagun horien inguruan bertze hainbertze ibiltzen direla, gaur den egunean, inork ez duelako hainbertze opor. Egiten di-

● IRAKURLEAK MINTZO ●

ren sakrifizioak ez dira ikusten, eta ez ditu inork kontuan hartzen.

Hamabortz egun pasatu dira sasoi hasieratik. Usategietako igandeko festa ate joka dugu —dagoeneko pasatua da—. Dagoeneko 30 dozena harrrapatu ditugu, eta polemika piztu zuten zuhaitz batzuk (12-15) puskatuta agertu dira. Horrelako jarrerara hartu duena gu baino tikiago sentitzen da ziurrenik. Bistan da ezin gaituela kontrolpean edukiki, mendi honen erabilera bertze bide bat hartzen ari delakoz.

Etxalarko usategiaren etorkizuna Interes Kulturaleko Ondasun izendatzea da, eta, beraz, eskopetarik gabeko eremua, gure ohitura zaharra babestu eta jendeak hemendik pasatzen diren hegaztiekin goza dezan. Udalak diru guttiago hartuko du, baina diru hori gabe ikasi beharko du aurrera ateratzen, egiazko aberastasuna jendeak eta sareek ematen diotelakoz herriari.

Etxalarko usategiaren txanponaren bertze aldeak.

Patxi Elizalde
Etxalarko usazaleak

Patxi Elizalde usazaleari erantzuna

Bidaltzen duen idatzian aipatzen du Etxalarko herria ohituratu egin behar dela enkantetik ateratako dirurik gabe bizitzera. Gure galdera da ea beraien orduan zergatik eskatzen dituzten denboraldi guztietan dirulaguntzak. Adibidez, joan den urtean,

sasoi bukaeran leku ezberdinetako usazaleak elkartuz egin zuten bazkaria ordaintzeko eskatutako 3.000 euroak ez diote inongo mesederik egiten Etxalarko herriari.

Etxalarko usategiaren etorkizuna Interes Kulturaleko Ondasun egin behar dela esaten dute, sarearekin usoa ehizatzea gizartearentzat ekintza kultural bat izango balitz bezala. Ez baitio ehizatzeke modu bat izateari uko egiten.

Idatzian, usazaleen lana gogortzat jotzen dute eta ez dute inon aipatzen, soldatapean egiten dutela lan hau. Beraz, gogorra modu txikian.

Aipatzen dute, sasoi honetan, ehiza puesto guztiak saldu direla eta guk dakigunez, 21. puestoa eta 4. sarea ez ziren saldu. Gainera, azkeneko enkantean ehizatarien eta Udalaren artean izandako desadostasunaren ondorioz, Etxalarko Udalak aurreko urteetan baino 35.000 euro inguru gutxiago bereganatu ditu. Zergatik jasan behar dute etxalartarreko galera hau?

Idatzian ere diotenez, 12-15 adar puskaturik agertu dira. Baina guretzat traban zeudenetatik bakarrik ere ez.

Edozein etxalartar gaita jakiteko usategiaren hiru helburu ezberdinetako jende taldeen arteko elkarbizitza beharrezkoa dela: sareekin ehizatzen dutenak, bisitariak eta eskopeta ehizatariak. Etxalarko historian, hiru talde hauek elkar bizitu izan dira azkeneko mendean.

Usazaleak bidalitako idatziarekin ondoriozta dezakegu, beraien helburua mendi guztia beraien menpe egotea dela. Inork trabarik egin ez diezaion.

Idea hau ez dute etxalartar gehienek onartuko: lehenengoz, Etxalarko herriak diru kopuru handi bat galduko lukeelako eta beste alde batetik, etxalartaren artean ezin egon izugarria sortuko litzatekeelako.

Usoa ehiza elkartetik Udalar eskatuko diogu idatzi baten bidez, ordenantza bat sortu dezan, goian aipatutako hiru talde horien eskubideak eta betebeharrak argitzeko.

Usoa Etxalarko Ehiza Elkarteak

Alkoholarekin arazoak dituen pertsona baten emaztearen esperientzia

43 urteko emakumezko bat naiz. Alkoholaren kontsumo konpultsiboarekin arazoak dituen gizonezko batekin ezkondua nago. Beti saiatu izan naiz kontent bizitzen nire senarrarekin eta nire seme-alabekin, baina errealitateak ezinezkoa zela erakusten zidan. Lekuz kanpo zegoen zerbait zegoela konturatu nintzen poliki-poliki.

Nire senarrarekin nuen harremana, ez zen txarra, ordutegi aldetik normaltasun bat zegoen, gizalagez jokatzeko guren elkarrekin, baina egunetik egunero okerrago sentitzen nintzen. Ez zegoen komunikaziorik gure artean, gure interesak desberdinak ziren eta abandonu eta tristezia sentimendua areagotuz joan zen.

Nik aunitz maite nuen baina argi nuen gehiegi

edaten zuela. Hor barna atera eta edateko beti edukitzen zuen denbora, eta guttitan zuen gurekin egoteko modua. Ia ez zen egoten etxean... Edariak dena baldintzatzen zuen. Ez genuen konpartitzen bizitza.

Arazoia niregan aurkitzen saiatu nintzen. Nire senarrak egindakoa justifikatzen nuen, bere gaixotasuna gordetzen nuen eta etxetik kanpo dena ongi zihoalaren itxurak egiten nituen.

Aldatzen hasi nintzen. Familia eta lagunengandik urrundu nintzen. Nire seme-alabekin nuen jarrerak arduratzen ninduen, nahiz eta ez izan txarra, baina errudun sentitzen nintzen. Ez nituen saihestu. Min egiten nien, larrutik ordaindu zuten.

Kontrolkeza sentitzen nuen, mina, amorrua, nahigabea eta ezintasuna.

Egun batean gehiago ezin nuela eta Al-Anonera deitu nuen. Alkoholarekin arazoak dituztenekin bizi garen gizon eta emakumeak biltzen gara hemen. Orduan ulertu nuen gaixotasun hau maltzurra eta nahasgarria dela dela. Zein neurritan eragin nuen ikusi nuen eta laurok pasatu genuen gaizki.

Duela urte batetik honat bizitzen ari naizela erraten ahal dut. Nire senarrarekin dudana harremana hobetu egin da eta etxeko giroa beroa eta lasaia da. Familiari buruz nuen ideien antzekoa bihurtzen ari da.

Egon, jolastu eta nire seme-alabei entzuteko gai naiz orain, errespetatu eta maitasunez eta ezarpenik gabe, eurek ere ni errespetatzen naute. Lo egiten dut, arnasa hartu eta lasitasunez ibili. Nire biz-

karreko eta buruko minak desagertu egin dira. Nitaz gehiago eta bertzeetaz guttiago arduratuz, nire sentimenduen jabe naiz. Garrantzirik gabeko gauzek guttienekoa arduratzen naute, eta ez dut mendirik egiten. Kontent nago. Mota, arraza, klase, baldintza, sinismen eta ideologia desberdineko pertsonak gaude Al-Anonen. Erljioa, politika, futbola edo telebistari buruz hitz egiten dugu. Gure sentimenduez solasten gara eta autolaguntzeko programekin elkarri laguntzen diogu. Ez dugu kuotarik ordaintzen. Toki guztietako pertsonen anonimotasuna isilean gordetzen dugu.

Laurok gure familia berreskuratu dugu, eta nik nire bizitza. Al-Anonen hagitxerik ongi doakit. Zuek ere probatu eta informazioa jaso nahi baduzue hurbiltzen ahal zarete. Ez duzue deus ere galduko, zuten denboratik tarte tiki bat baino ez. Ez dugu deus hitz ematen, baina taldeetan gaudela erran dezakete, eta hobeki sentitzen garela. Telefonoa 639 400406 da.

Alkoholiko baten emaztea

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 leerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ERREPIDEAK

Herri Lanetako batzorde parlamentarioarekin bildu dira Bortzirietako udal ordezkariak

Hasierako proiektuan egin diren aldaketa eta puntu beltzen inguruan hitz egin dute

ttipi-ttapa

«N-121A errepidetako obrak akitzean, orain puntu beltzak diren zenbaitoki, hagitz beltzak izatera pasatuko dira, eta puntu horiek Sunbillako bidegurutzea eta Berarako sarbidea dira». Bertze hainbat konturen artean, horrela adierazi zuten Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako udal ordezkariak urriaren 22an Nafarroako Parlamentuko Herri Lanetako batzordearen aitzinean egindako agerraldian. Hasiera batean iragarritako proiektuan egin diren aldaketen gainean euren iritzia agertzeaz gain, bertzelako kezken berri ere eman zuten.

Sunbillako bidegurutzean azken urteotan zauritu eta hildako andana izan direla gogoratu zuten udal ordezkariak, eta Alkaiagatik bama Berara sartzeko dagoen bideak ere aterabide bat behar dela nabarmendu zuten. Berako Udalaren iritziz, egokiena biribilgune bat egitea litzateke.

Horrez gain, hasierako proiektuarekin alderatuz egin diren aldaketez mintzatu ziren Parlamentuan. Telleriko tunelari buruz zera adierazi zuten: «hasierako proiektuan tunela osotasunean mantenduko zela erran zen». Baina aldaketak egon dira, eta Gobernuak tunela neurri batean mantentze aldera, udal ordezkariak «gustatu ez» zaien aldaketa proposatu du. Departamentuak horretara bideratu nahi dituen 1,5

milioi euroak Enderlatsa-Sunbilla trenbidea mol-datzen gastatzea nahitago dute Udalek. Larreza-

baleko loturaz ere hitz egin zuten.

Lesakarako sarbidean aurreikusitako den aldaketa

«hobea» dela iritzi diote, nahiz eta Matxain base-rria bota beharko den. Igantziako Udalak, bere al-

detik, Igantziako Bentetan kaltetua aterako den herritar baten egoera azaldu zuen.



Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazpena

2008ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2008ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2008ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamentuzko exekuzio bidez %20ko errekar-guarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2008ko urriaren 1ean

Presidentea
Patxiku Irisarri Elizagoien

BERA

Herriko bazterretan dauden megalitoak markatuko ditu Hilharriak taldeak

Nafarroako Gobernuak bideratutako ekimena da

ttipi-ttapa

Gure historian garantzian haundikoak izan diren harri bereziak dira megalitoak. Urteekin aunitz desagertu dira, baina milaka urteren buruan mantentzen direnak ere badira. Azkenaldian, horiek berreskuratzeko ahalegin bereziak egiten ari dira hainbat tokitan, eta Beran ere horrela egingen da. Mendi inguruan dauden megalitoak markatzeari ekinen dio laster Hilharriak taldeak. Nafarroako ondasunak biltzea da helburua, eta Nafarroako Gobernuaren eskariz hasiko da markatzen aipatu taldea. Trikuharriak, mairubaratzak, tumuluak... Gisa aunitzetako megalitoak markatuko dira.

Auzoetako bideetarako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak nekazaritzako azpiegituretarako dirulaguntza emanen dio Udalari. Hala, baserri auzoetara bideak egiteko aurtun 60.000 euro jasoko ditu Herriko Etxeak, eta bertze horrenbertze heldu den urtean.

Web orri berria

Interneteko atari berria du herriak: www.beragureherria.com. Euskaraz eta gaztelaniaz egingo da eta argazki galeria zabala osatu dute, argazki zaharrekin, base-nari, ohitura, leku interesgarri, ospakizun eta kirolari lotutako argazkiekin eta prentsako artikuluekin. Jose Antonio *Totino* eta Rosamari Errandoneak egin dute.

Hainbat hitzordu datozen egunetan

- Urriak 31, ortzirala** - 18:00etan haurrentzako ipuin kontalaria, Udal Liburutegian.
- Azaroak 1, larunbata** - 20:00etan Taiwango The Formosa Singer abesbatzaren kontzertua Kultur Etxean.
- Azaroak 7, Ortzirala** - 22:00etan *Bob? Nor da Bob?* antzezlanak Katakun.
- Azaroak 9, igandea** - 17:00etan Txan magoa Kultur Etxean.
- Azaroak 13, ortzeguna** - 18:30ean *Zer eragin du irakurzaletasunak haurraren bilkaeran?* solasaldia, Udal Liburutegian.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Labiaga eta Tantirumairuko ikasleak arraunean

Labiaga eta Lesakako Tantirumairu ikastolako neska-mutikoak Ikararrauna jardunaldian ibili ziren urriaren 15ean. Bi herriak bereizten dituen Bidasoa ibaian goiti eta beheiti ibili ziren, arraunaren sekretuak ikasten. Horretarako, arraunaren mundua ezagutzen duten bi irakasle lekeitiarren laguntza izan zuten. Aurtengoa bigarren edizioa izan da Labiagakoentzat, eta lehena lesakarrrentzat. Bertzalde, ikastolako Pedagogia Taldeak antolatuta, Euskal Jokoak eta Jolasak izeneko ikastaroa egin dute ikasle, irakasle eta gurasoek urrian. Guztira bi orduko bortz saio egin dira Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrentzako jokoak ikasteko. Talde mugatua izaki, 12 lagunek parte hartu dute.



ARGAZKIA: G. URDANPILLETA

Mugarik gabe topaketa arrakastatsua

Urriaren 11n eman zitzaion amaiera Bortziritan egin den Mugarik Gabe kultur ezberdinetako V. asteari. Ekitaldi nagusiak urriaren 11n egin baziren ere, lehenagotik dokumental, hitzaldi eta futbito partidekin gozatzeko aukera izan zen Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Inti Kausay eta Bortziritako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik. Egundian, berriz, denetarik ekitaldiak izan ziren: bertsoak, musika, jardunaldi gastronomikoak, Egiptoko dantzak eta capoeira, futbito txapelketako sari banaketa... Toki aunitzetako jendeak hartu zuen parte: Argentina, Peru, Bolivia, Kuba, Kolonbia, Guatemala, Ekuador eta Euskal Herria. Antolatzaileak gustura ageri ziren topaketak izandako erantzunarekin.

Alkate 1 - BERA
Telefonoa: 948 631 400

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Bera
Goya

Aldon 3 - Tel: 948 630 083

ERREKALDE

PLATER KONBARTUAK

PATXIKAK

BRANCAS

TFNoa: 948 630 25A BERA

Tel: 948 631 076 BERA

LESAKA

Burdinaren Etxea inauguratuko da urriaren 31n komentuko beheitian

Turismo Bulegoa ere bertan kokatuko dute

Aitor AROTZENA

Ortziral honetan, urriaren 31n, Doloreetako Ama Birjinaren komentuko beheitian kokatutako Burdinaren Etxea inauguratuko da eguerdiko 12etan. Bertan proiektuari buruzko txostena banatuko da. Burdinaren Etxean Pedro Lanz herriko arotxaren lanak ikusgai izanen dira eta lanbideari buruzko ikusentzuneak ere grabatuko da. Burdinaren Etxea ez ezik, Turismo Bulegoa ere bertan izanen da.

85 urtekoei omenaldia azaroaren 7an

Azaroaren 7an egingen zaie Lesakan 85 urte bete dituztenei omenaldia, Nafarroako Kutxak eta San Fermin Jubilatuen Elkartek antolatuta. Hasiera batean, Urrezko Ezteiak eta Diamantezko Ezteiak bete dituzten senar-emazte omenaldia egiteko asmoa zen, baina Javier Zelaieta Nafarroako Kutxako zuzendariak aipatu digunez, aurten 50 urte ezkondurik bete dituzten senar-emazte bikoteak Lesakatik kanpo bizi dira edo ezinezkoa dute ekitaldira agertzea.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Haurraren Eguna azaroaren 16an

Kultur ekitaldiz ongi hornitutako azaroan, hilaren 20koazienda feria eguna izanen da izarra. Halere, aitzineko igandean egingen da Haurraren Eguna eta hori antolatzen dabilta Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako Guraso Elkartek. Goizean jokuak, eskulanak, margoketak eta gisako ekitaldiak izanen dituzte eta arratsaldean, musika eta berendua. Hilaren 18an ipuin kontalaria izanen da, 22an bertso bazkaria eta Santa Zezilia eguneko musika taldeen emanaldia eta 29an, Lesakan Euskaraz Bai Eguna izanen da. Arkupeko antolatutako nesken paleta goma txapelketari lekukoa hartuz, Batzokik gizasemeena antolatu du eta azaroaren 2tik abenduaren 20ra jokatu da.

Horregatik, hasierako asmoa aldatu eta 85 urte bete dituzten Urrezko Adina elkarteko kideak omenduko dituzte. Zehazki hiru izanen dira omendutakoak, 1923an sortutakoak hiruak: Juliana Etxeberria Telletxea, Santiago Telletxea eta Joxe Mari Iratzoki Telle-

txea. 12:30ean Meza izanen dute aurten hildako San Fermin Erretiratuen Elkarteko eta Nafarroako Kutxako Urrezko Adina elkarteko kideen alde. Segidan, plazan aureskua eskainiko zaie omenduei.

Aurten Etxalarko Bentetan izanen dute

bazkaria eta joateko nahiz etortzeko autobusa izanen da. Bazkalondoan, bi telebista zozketatuko dira hurbildu diren artean eta akautzeko, Xalbador Madariagarekin dantzaldia izanen dute. Aipatu bezala, Lesakara itzultzeko ere autobusa izanen da.

FLASH

Iñaki Fagoagak 15 urte kartzelan

Iñaki Fagoaga lantzi preso lesakarrak 15 urte bete ditu kartzelan. Urteurrena gogoratzeko eta *Euskal preso eta iheslariak etxera* izenburupean, urriro egiten den Sastrinerako mendi ateraldia eta ekitaldia egingen urriaren 25ean. Aipatzekoa da Iñaki Fagoagak bere zigorraren hiru laurdenak bete dituela eta legea betez, aske egon beharko lukeela. Iñaki ez ezik, Bortzietako bertze preso eta errefuxiatuak gogoratu ziren larunbateko ekitaldian.

Emakumeen paleta goma finala

Arkupe pilotazale elkar-teak antolatutako emakumezkoen paleta goma txapelketako finala eta hirugarren posturako partida jokatu dira larunbatean, azaroaren 1ean, 16:30etik aitzinera.

Ikastaroa Alkaiagan

ANEL Nafarroako Lan Enpresen Elkartek antolatuta, *Gure enpresa kudeatzen* izeneko ikastaroa egingen da azaroaren 4tik 27ra Cederna-Garalurek Alkaiagan duen egoitzan. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Europar Batasunak %100ean subentzionatutakoa izanen da eta astearte eta ortzegunetan eskainiko da, 16:30etik 20:15era. Izena emateko 948 625122ra deitu beharko da, 09:00etatik 14:00etara.



ETXALAR

1.000 lagunetik goiti bildu ditu Usategietako Igandeak

Eguraldi ederra lagun, egun handia izan zen urriaren 19a

Joseba eta Nerea

Eguraldialagun, zientoka lagun bildu ziren Iharmendiko gainean Usategietako Igandean, urriaren 19an. Usoak nola ehizatzen diren ikusi, paseo bat eman, eta bisita gidatuak egiten harapatu genituen bisitariak, tenperatura ona eta giro oraindik hobea probetuz. Patxiku Irisarri alkate eta usazalek aipatu digunez, «1.500 lagun inguru ibili ziren Usategietan goiz partean». Arratsaldean, herrira jau-tsi zen besta. Kale animazioa izan zen Detra-ka taldearen eskutik. Ttikien gozamen ederra hartu zuten hankaluzer eta bertzelako panpinekin. Joselu Anaien eskutik izan zen herriko plazan dantzaldia. Altxata Kultur Elkarteak ostatua paratu zuen frontoian egun osoan, eta handik ere jende parrasta pasatu zen tragoa hartu eta bokadiloa jatera. Urtero bezala, dantzaldiaren atsedendaldian, 12 usobi-

zirik zozketatu ziren. Aurtent Kattoneko Jasone Iparragirrerentzat izan ziren usoak. Bigarren saria, bi lagunentzako aforria, Mariskineko Bordako Mari Luz Ariztegik eman zuen. Hirugarren saria 5.351 zenbakiari egokitu zitzaion, baina ez zen momentuan atera. Zerbaki horren jabeak Altxata Kultur Elkarteak kideren batengana hurbildu beharko du kanpin denda eskuratzeko.

Uso denboraldia ongi hasi dute Usategietan

Joxe Angel Goienez albintek adierazi digunez, «Usategietako Igandera arte 60 dozena uso eta 11 dozena txoloma baino gehixeago harapatu dira sareetan. Hortaz, hagitx ongi hasi dugu aurtengo denboraldia». Egunik hobena urriaren 10a izan zen. 19 uso dozena baino gehiago harapatu ziren eta kornetak 90 aldiz jo zuten. «Urriaren 17 eta



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

IV. Patata Tortilla Txapelketa

Usategietako Igande bezperan, aurtent laugarren aldiz, patata tortilla txapelketa egin zen frontoian. Lehiaketako hirukote gazteenak jantzi zuen txapela. Argazkian ageri diren Oihanek, Anek eta Idoiak, 16 urterekin tortillarik hobereana egin zuten. Guztira 14 taldek parte hartu zuten; 9 taldek helduen sailean (16 urtetik goiti) eta 5 taldek haurren kategorian. Hauxe izan zen sailkapena: txapeldunak Oihane, Ane eta Idoia 90 punturekin. Bigarren Mattin, Patxi eta Federiko Arribillaga 71 punturekin, eta hirugarren Xabier Etxarte, Mikel Ibarra eta Julen Maia 70 punturekin. Tortillarik txarrenaren saria Julen Aranburu, Iñaki Bertiz eta Mattin Maiak eraman zuten. Hauena izan zen guttien puntuatutako tortilla. Sari moduan tortilla egiteko osagaiak eman zizkieten. Jantzkerarik originalenaren saria Aintzane Iparragirre, Amaia Agirre eta Olatz Ollorak eraman zuten. Ttikien sailean Beñat Maia, Ibai Gallardon eta Aitor Danborienak irabazi zuten. Antolatzaileak gustura zeuden lehiaketak izandako martxarekin eta hurrengo urterako animatuak daude, 5. edizioa egiteko.

18a ere egun onak izan ziren. Egun bakoitzean 14 dozena hartu genituen», aipatu digu Joxe Angelek. Uso pasari dagokionez, joan den urriaren 18a izan zen, Usategietako Igande bezpera, egunik hobereana «240.000 uso baino gehiagorekin», ehizturiek erran digutenez.

Segurtasun balizak

Bera aldetik herrira sartzeko, errepide nagusiko bi karrilen artean geldiaraztera derrigortzen duen STOPa arriskutsua dela iritzita, Aitor Etxarri NaBaiko parlamentariak Bentetako bidegurutzean segurtasun balizak parartzeko

eskaria egin zuen Parlamentuan. Horri erantzunez, N-121A errepideko moldaketa lanekin batera, herrira datozenek erabiltzeko bidegurutzea egiten da, baina lan horiek akautzeko urtebete baino gehiago falta denez, behin behineko aterabide bat ematea nahi du NaBaik.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autozomak ☞ Nekazariak eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontratutarako laguntzak ☞ Enpresa berritzailearen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilatze espedienteak ☞ Bidegarietasun planak eta aumekontuak
--	--

artekari@artekari.com

LESACA: Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

USOA
nekozari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiens
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Manterola
Taldeko instalazioak
Ihurgintza - gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602-BERA

ERROTAR
harategia

Bertako produktua

Eztegera, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARANTZA

Ekitaldiz beteriko Kultur Egunak izanen dira ortziraletik igandera

Hitzaldia, haurrentzako txokoa, azoka, bertso afaria, herri kirolak... izanen dira

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean, Kultur Egunak ortziral honetatik igandera bitarte izanen direla iragarri genuen, urriaren 31tik azaroaren 2ra, alegia. Halere, hainbat ekitaldi zehaztu gabe utzi genituen, baina aldi honetan xehetasun guztiak jaso ditu ondorengo lerroetan:

ORTZIRALA, urriak 31

- 20:00etan Zahar Txokon **hitzaldia**: *euskal zerriaren historia, ezaugarriak eta ustiapena*. Hizlariak hauek izanen dira: Bittor Jauregi amaiurtarra, euskal zerri ekoizlea eta Bernart Bethar urepeldarra, Euskal Zerriaren Elkartean sortzailea.

- 22:00etan **Mus Txapelketa** Ekaitza Elkartearen. Bikote irabazleak bi zerri-kuttin eta bi txanpan botila eramanez dituzte, eta bigarrenak bi oilasko eta bi ardo botila.

LARUNBATA, azaroak 1

- 10:00etatik aitzinera frontoian **Baserritarren Eguna**.
- 17:00etan gorapean **haurrentzako tailerak**.
- 21:00etan **bertso afaria**

Ekaitza Elkartearen, Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

IGANDEA, azaroak 2

- 12:30ean **herri kirolak** frontoian. Miren

Urkiola eta Maria Jose Sardon harri-jasotzaileen erakustaldia.
- 17:00etan **haurrentzako antzerkia** eskolako gimnasioan: *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino*.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jardunaldi gastronomikoak

Ehiza denboraldia dugunez, herriko jatetxeetan ehiza platerak eskaintzen dira. Bertzalde, sasoiko platerak eskaintzeko helburu berberarekin, Bertizko Turismo Partzuergoak 16. aldiz ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak antolatu ditu. Eskualdeko zenbait jatetxe urriaren 31tik azaroaren 30a bitarte luzatuko den ekimen honen barne daude eta aurtengo edizio honetan Burlada jatetxeak ere parte hartuko du.

FLASH

Herriko bi pilotari aurrez aurre

Nafarroako 22 urtez behetikoko pilota txapelketan, bi aranztarrek egin zuten topo joan den igandean Labriten: Imanol Mitxelenak eta Joseba Madariagak. Lerro hauek idazterakoan ez genuen partidaren nondik norakoak berririk, baina final laurdeneko partida izan zen. Mitxelenak Huarteko Kortabarriari 18 eta 13 irabazita lortu zuen final laurdenerako txartela. Madariaga, berriz, Aldabideko Mattin Ezkurdiaren kontra aritzekoa zen, baina hau ez zen aurkeztu. Hala, bi aranztarrek final laurdenerako partida jokatzekoa zuten joan den igandean. Bietako bat segurutik izanen dugu buruz buruko txapelketako finalerdian.

Tomas Goia bake epaile ordezko

Azken urteotan bake epailearen ordezko izan den Tomas Goiak segituko du hemendik aitzinera ere postu horretan. Izan ere, Udalak bertze lau urtetarako onartu du Pili Larretxea bake epailearen ordezkoak Tomas Goia izan dela.

Pitti
eskalariak
Tel: 616 513 491

iparra
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
Real Springs - Alaitz

Informazio gehiago:
00 33 569 48 19 32
00 33 659 82 26 26

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanoak desde
1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Ituzia
HIDROERRENTZTA
HIDROEMBRIA

FERROVARIATIONEN
LARRALDEA

SUNBILLA

Nafarroako Kirol Jolasetan parte hartzen ari dira herriko gaztetxoak

Hurrengo ateraldia azaroaren 23an egingen dute

Jaione OTXANDORENA

Bertze urte batez, herriko gaztetxoak Nafarroako Gobernuak, Mendi Federazioak eta begiraleek elkarrekin antolatzen dituzten Nafarroako Kirol Jolasetan dabiltza. Joan den urriaren 12an, Lesaka eta Berako gazteekin batera, Otsagira egin zuten ateraldia. Hasiera batean Ori mendira igotzea zen helburua, baina eguraldi kaxkarraren ondorioz, azken momentuan erabakia aldatu eta Aboditik Otsagirainoko bidea egin zuten oinez, 17 kilometro inguru. Ibilbidean eguraldi txarra izan zuten eta begiraleek adierazi digutenez, gaztetxoek meritu izugarria izan zuten. Hurrengo ateraldia azaroaren 23rako antolatu dute, eta Lizaieta-Zugarramurdi ibilbidea egiteko asmoa dute.

Antzerki ikastaroa

Iaz bezala, aurten ere antzerkia ikasi eta egiteko aukera izanen dugu



UTZITAKO ARGAZKIA

Zenbaitetan eguraldiak lagundu ez arren, gustura dabiltza neska-mutikoak.

herrian. Ikastaroa, azaroaren 6an 16:30ean hasiko da. Beraz, interesa duenak egun horretan azaltzearekin nahikoa izanen du. Hortik aitzinera ortzegunero bilduko dira klaseak emateko. Aipatu behar da joan den urtean antzerki ikastaroan egondako haurrek bi antzerki egin zituztela: lehena Asteburu Kulturalean eta bigarrena ikasturte amaieran. Bi antzezlanak hagitz politak

izan ziren eta ea aurten ere horrelakoren bat ikusteko aukera dugu!

Alfredo Arretxea ETBn

ETB 1eko *Horrelakoa da bizitza* saioan herriko sukaldaria den Alfredo Arretxea azalduko da denboraldi honetan ere, ortzegunero 19:45-20:30 artean. Nolako platergoxoak prestatzen dituen ikusteko aukera izanen dugu eta ausartenak

etxean errepikatzeke aukera ere izanen dute. Hori norberaren esku egonen da!

Kontzertua azaroaren 15ean

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren barne, azaroaren 15ean, emanaldia eskainiko du Giltzarri abesbatzak Elizan. 20:30ean hasiko da kontzertua.

ARKUPEAK

Eguneko zentroaren lehenengo harria azaroaren 22an

ttiipi-ttapa

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarrearen ekimenez, Donezteben egin nahi den eguneko zentroaren lehenengo harria paratuko da heldu den azaroaren 22an. Horrez gain, egun berezia antolatu dute Arkupekoek. Hala, elkarteko hainbat kidek omenaldia jasoko dute: Milagros Apeztexeak goizuetarrak, Salvador Arotzena doneztebarrak, M^{re} Dolores Oronoz elizondarrak, M^{re} Angeles Altzugarai narbartearrak, Micaela Etxeberria iturendarrak eta M^{re} Jesus Zabala doneztebarrak. Aipatu, egun horretan parte hartu nahi duenak aitzinetik eman beharko du izena. Azaroaren 2tik 10era bitartean herrietako ordezkariak jakinarazi beharko zaie. Gainerako xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorak
Janandenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

ZJ Zalain
jaketxea - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

mikkala
Didasoa 41. Bera
Tel. 948 630 500

MALERREKA

Uterga eta San Migel txapeldun Nafarroako erremonte txapelketan

40 eta 34 irabazi zioten Zeberio II.a eta Badiolari

ttipi-ttapa

Erremonte profesio-nalak bertze bi txapel eman dizkio Donezteberi. Urriaren 18an jokatu zen Nafarroako Foru Komunitateko txapelketaren finala Labriten eta Xanti Uterga eta Julen San Migelek 40 eta 34 irabazi zioten Zeberio II.a eta Badiolari. Doneztebarrek txapelketako bikoterik gazteena osatzen zuten, baina halere, txapelketako bortz partidak irabazi zituzten, erremontean be-launaldi aldaketa dato-rrera erakutsiz.

Finalak hasiera nahiko parekatua izan zuen eta Gipuzkoako bikotea hiru tanto aitzinetik izan zen, 9 eta 6. Bederatzi-na berdindu ondotik, 11-9 ere aitzineratu ziren, baina hortxe akitu zen beraien nagusitasuna. Uterga ausart eta egoki aritu zen aitzinean eta 23 tanto egin zituen. Julen San Migelek ongi agindu zuen gibelean eta bere kolpea nagusitu zen.



ARGAZKIA: G. URDANPILETA

Txistu Eguna lehen aldiz Donezteben

Lesaka, Arantza, Bera, Noain, Lizarra, Iruña, Donostia eta Doneztebeko txistulariak elkartu ziren urriaren 11n Donezteben egin zen Txistu Egunaren XIII. edizioan. Lehendabiziko aldia zen topaketa hau Donezteben egiten zela, eta guztira 51 musikari bildu ziren. Herrian barna itzulia eginez hasi zuten eguna: Merkatuko Plazatik abiatuta, Zazpigerutze auzoan, Elizagibelan eta Intzakardi parkean ibili ziren bazterrak alaitzen. Santa Maria jatetxean egin-dako gosariaren ondotik txistu poteoari ekin zioten. Kasu honetan talde ba-koitzak pare bat pieza jo zituen egin zituzten pausaldietan. Bertze itzulixka bat ere eman zuten herrian elizatik hasi eta Kale Nagusian barna. Goizeko ekitaldiei akabera emateko, Santa Maria jatetxean bazkaria egin zuten. Bazka-londonan, Lesaka eta Doneztebeko taldeko musikariek berriz ere txistu po-teoa egin zuten eta azken itzulia 23:30ean egin zuten. Heldu den urteari be-gira, bertze aldaketarik ezean, Arantzan eginen da Txistu Eguna.

Zubietako alkate-ordea lanean

Urriaren 9az geroztik, Patxiku Mitxelena Zu-

bietako alkatea kanpo-an dela-eta, Pedro Hilario Santesteban alka-teordearen gain utzi di-

tu alkate bezala dituen eskumenak. Neurri ho-riek azaroaren 10era arte iraunen du.

GASTRONOMIA

Ehizaren XVI. jardunaldi gastronomikoak laster abian

ttipi-ttapa

Bertiz Partzuergo Turistikoko antolatuta, ortziral honetan, urriak 31, abiatuko dira hila-bete batez eginen di-ren Ehizaren jardun-aldi gastronomikoak. Azaroaren 30a arte ehizarekin lotura duten menuak dasta-tzeko aukera izanen da eskualdeko 10 jate-txetan. Almandozko Beola, Arantzako Burlada, Berako Zalain, Donamariako Benta, Doneztebeko Amez-tia, Elbeteko Oñaska eta Posada, Igantzi-ko La Villa, Lesakako Koxkonta eta Oitze-ko Posada dira jar-dunaldi hauetan parte hartuko dutenak. 26 eta 35 euro arte-an balio duten me-nuak izanen dira –BEZ eta edaria sar-tu gabe– eta, bertze-ak bertze, uso, basur-de, orein, erbi edo oila-gorrekin egindako pla-terak eskainiko dira.

APARAN, S.A.
BOIXOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 060
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

6 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

carne
gustatzen duzue

100% arrainak
100% konjuntak

100% arrainak
100% konjuntak
www.carne.net

ITUREN

Mediku eskasiagatik herritarrek Doneztebera joan behar dutela salatu du Udalak

Ez dago mediku nahikorik Malerrekako mediku behar guztiak asetzeko

Arkaitz MINDEGIA

Udalak bando bidez jakinarazi duenez, Malerrekako bertze herrietan bezala, Iturenen ere nabaritzen hasia da Nafarroan dagoen mediku eskasia. Izan ere, dauden kontsultategi guztietako zerbitzua asetzeko mediku nahikorik ez dago, eta horren ondorioz, «titular bat falta denean, lankide bat bikupo elkartzera behar du dago. Kontsulta Donezteben pasatu behar du gaixo guztiei kasu egin ahal izateko, eta aldi horietan herriko kontsultategiak itxita egon behar du», dio oharrak. Erabaki horrek gaixoak Doneztebera mugitzera behartzen dituela irizita, «erantzukizuna eta konponbide bat ematea Nafarroako Gobernua-ri dagokiola» adierazi dute Udaletik. Herriko kontsultategian ez ezik, Doneztebeko Osasun Zentroan ere erreklamazio orriak paratu dituzte eskura.

Bestetako bazkarietan izen emateak

Aurtizko besten barne, azaroaren 7an eginen den herri bazkari-rako txartelak erosteko azken eguna urriaren 31 izanen da. Bazkariaren prezioa 28 da eta norbaitek bazkarira joan nahi badu, nahikoa da herriko gazte bati erran eta bortz euroko ordaintzea fidantza gisa. Bertze aldetik, astelehenean, azaroak 10, Aurtizko ostatuan bazkaria izanen da eta izena emateko ostatuan bertan egin beharko da.

Zorionak Ander!

III. mailako Euskadiko Aizkora Txapelketan bigarren postuan geratu zen Ander Erasun aurtiztarra, Aitzol Atutxa txapel-dunarengandik 2 minutu eta 5 segundora. Sei aizkolari aritu ziren lehian Altsasun eta egin beharreko lana bosna pago-enbor ebakitzea izan zen: hiru kanaerdi-

ko eta bi 60 ontzako. Lehia polita izan zen bigarren postua lortzeko Erasun eta Mugertzaren

artean. Azkenean, Anderrek 29 segundoko alde atera zion. 14 minutu eta 40 segundo be-

har izan zituen aurtiztar-rrak eta 15 minutu eta 9 segundo mutrikuarrak. Zorionak!



UTZITAKO ARGAZKIA

Dantza ikastaroa martxan

Aspaldian herrian desargetua bazegoen ere, azken urteotan geroz eta gehiagok ematen dute izena dantza ikastaroan, eta herrian izaten diren besta egunetan emanaldiak eskaintzen dituzte. Aurten ere Ibintza Kultur Taldeak ikastaroa abiatu du eta irakaslea Nagore Arretxea beratarra izanen da. Lau talde ezberdinetan banatuak daude, guztira 70 ikasle. Astearte eta ortzegunetan izaten dira entsaioak Herriko Etxeko ganbaran. Norbaitek apuntatu nahi badu, hurbil dadila egun horietako batean eta Nagoreri erran diezaioela. Bertzalde, Aurtizko bestetan eginen duten saioa prestatzen hasiak dira eta seguru haur gazte eta helduek emanaldi polita eskainiko dutela azaroaren 9an, igandea, 17:30ean Aurtizko frontoian.

BERA Zere legarra klase guzietako inaktuz (xomarro, zinaurre, arriarrea, kukuxo...) eta arretel sagutaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termitea eta Pipien tratamendurik.

GGI EKO Industria Gertakarien Produktuak

Tel: 948 625 567 • Zelen, 401 A • BERA

Kimetz Ekolondoria Larre Agria

Dietetik eta nutrizio Diete pertsonalizatuak

Naturaleko kontsulta • Masajak

Tel: 948 451 473

DONEZTEBE

LEGARRA

ESKOLAKO MATERIALA PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

ZUBIONDO Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika

BERA NAFARROA

BEINTZAKO OSTATUA

Tel: 948 45 00 14

ORBELA

MALERREKA

Aurtizko San Martin bestak azaroaren 7tik 11ra

Igande eguerdian bi aizkora apustu izanen dira: gaztetxoak eta helduak

Ortzirala 7 Bezpera

12:00etan txupina-
zoa herriko txistulari eta
trikitilariekin. **12:30ean**
herri kirolak gazteen ar-
tean. **14:00etan** herri
bazkaria Lizaso eta Ega-
ña bertsolariekin eta
Txapre trikitilariarekin.
21:30ean Zopak Aur-
tizko Ostatuan. **23:30-
ean** rock kontzertua
MUGALARIAK, ZOL-
DAK, KASKEZUR eta
AMETS ILUNAK taldeek-
in.

Larunbata 8

10:00etan argi soi-
nuak herriko txistulari eta
trikitilariekin. **12:00etan**
herriko gazteen arteko
pilota partidak. **17:30ean**
trikitixa jaialdia. **Ondo-
tik** berendua parte-har-
tzaille guztiarentzat elkar-
tean. **Gauetz** dantzaldia
LAIOTZ taldearekin.

Igandea 9

10:00etan argi soi-
nuak Herriko txistulari eta
trikitilariekin. **11:00etan**

meza. **12:30ean** aizko-
ra apustua: Kenari Era-
sun eta Iker Espelosin,
Mikel Zabaleta eta An-
doni Espelosinen aurka.
Migel Mindegia eta An-
der Erasun, Donato La-
rretxea eta Raul Kastro-
ren aurka. **17:00etan**
dantzarien saioa. **On-
dotik** JOXE ANJEL
akordeoilariarekin dan-
tzaldia.

Astelehena 10

10:00etan argi soi-
nuak herriko txistulari eta
trikitilariekin. **10:30ean**
mus txapelketa. **11:00-
etan** haurrentzako joko-
ak. **13:30ean** bazkaria
Aurtizko Ostatuan gaz-
te eta helduentzat. **13:30ean**
elkartean her-
riko ttikientzat baz-
karia. **Arratsaldez** hau-
rrentzako tailerra eta txo-
kolatada. **19:00etan**
dantzaldia JOXE ANJEL
akordeoilariarekin.

Asteartea 11 San Martin Eguna

10:00etan argi soi-
nuak herriko txistulari eta



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Berrikuntza gisa, aurren neska-mutikoei astelehenean goiz-arratsaldean gozatzeko aukera izanen dute: jolasak, tailerrak eta bazkaria izanen dituzte.

trikitilariekin. **11:00etan**
Meza Nagusia Martin
Deunaren ohorez. **On-
dotik** herritarrentzat lun-
txa Aurtizko Ostatuan.

12:00etan herritarren ar-
teko pilota partidak: Era-
sun-Aranburu Altzuri-Al-
tzuri II.aren aurka eta
Mindegia-Aiora, Berre-

gi-Berregi II.aren aurka.
17:30ean beste amaie-
ra emateko postre lehia-
keta elkartearen trikitilari-
ekin.

GOIZUETA

Areto-futboleko ekipoa sortu dute herriko 15 mutil gaztek

Gipuzkoako hirugarren mailan ari dira Umore Onako jokalariek

Esteban AROTZENA

Irailaz geroztik, atal berria du Umore Ona Elkarteak: areto-futboleko taldea. Gipuzkoako hirugarren mailan jokatzeko du Umore Ona taldeak eta zorte gutxi xamarrez ekin dio ibilbide berri honi, kronika hau idatzi aurretik jokatuak lau partidak galdu egin baitituzte goizuetarrek. Dena den, emaitzek ez omen dute garrantzi gehiegirik gazte hauentzat. Jokatu nahi duen guztiari ireki dizkio ateak taldeak, puntan ibiltzeari uko egitea suposatuta balezake ere erabaki horrek. Beste helburua larunbat arratsaldeak girotea da, eta hori ederki lortu dute, bete egin baitira eskolako frontoiko harmailak orain arte bertan jokatuak bi partidetan.



ARGAZKIA: ELENA GARTZIA

Umore Ona areto-futboleko taldean ari diren herritar batzuk ageri dira argazkian.

Denboraldiari aurre egiteko beharrezkoak diren 3.000 eurok buruhauste franko sortu dizkiete Umore Onakoei. Udalaren eta Elkartearen babesaz gain, Nafarroako Kutxaren *Zeukau-*

keratu, zeuk erabaki programara aurkeztu dute proiektua eta baikor begiratu diote alde horretatik etorkizunari. Enpresetan ere, Orona kasu, dirulaguntza jasotzeko gestioak egiten ari dira.

Iker Apezetxea entrenatzailea eta Mikel Etxeberria delegatuarekin batera, ondoko hauek osatzen dute Umore Ona areto-futboleko taldea: Josu Narbarte, Garikoitz Lopez, Fernando Goia,

Beñat Lekuona, Alain Goizueta, Ekaitz Narbarte, Mikel Perurena, Hodei Lujanbio, Xumar Bakero, Egoitz Zubiri, Iñigo Aduriz, Pablo Miranda eta Iñaki Rodrighez.

Arkupekoak Doneztebera

Doneztebeko eguneko zentroaren lehenengo harria ezarriko dela eta, bertara joateko deia luzatu du Arkupeak-ek azaroaren 22rako. Jubilatuen Elkarte hau sortu zenetik gure herriko delegatua den Milagros Apezetxea omenduko da gainera egun horretan. Beraz, beste arrazoi bat gehiago Doneztebera agertzeko. Izena emateko epea hilaren 2tik 10a bitartekoa da; ordaindu beharrekoa, berriz, 35 euro. 9:00etan aterako da autobusa herritik.

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi fundatan espezializatuak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

ARESO

Industrialderako sarbidea inauguratu dute udal eta gobernu ordezkariak

Urriaren 24an Laura Alba kontseilaria etorri zen

Juana Mari SAIZAR

Joan den urriaren 24an inauguratu zuten industrialderako sarbidea. Herriko alkate eta zinegotziez gain, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilaria den Laura Alba ere herrian izan zen. Izan ere, Sukia enpresarekin batera, hauek urbanizatu dute industrialdea. Industrialdean barna itzulia egin ondotik, hamai-ketakoa egin zuten bildutako guztiek.

Olazabal bikain

Mikel Olazabal herriko pilotari gazteak ikarragarria egin zuen urriaren 20an Tolosako Beotibar pilotalekuan, buruz buruko txapeliduna den Oinatz Bengoetxearen kontra 22 eta 16 irabazi baitzuen, lau t'erdiko txapelketan. Denon harridurako emaitza izan zen, Bengoetxea baitzen faboritua. Hala, ho-

na hemen kontuan hartzeko esaldi bat: *beti pentsatu behar da, aherioa ez dela eskumotza edo maingua, partida guztiak jokatu egin behar dira eta 22ra ailegatu.*

Lerro hauek idazterakoan, urriaren 25ean egitekoa zen Kokaren

kontrako partida jokatu gabea zuen Olazabalek, eta zuek irakutzerakoan behar bada emaitza jakina izanena da, baina edozein kasutan, Bengoetxearen kontrako partida izan da albistea eta horrek sona handia eman dio herriko pilotari gazteari.

Kirol guneari laguntza

Lehenago iragarri bezala, eskolaren atzeko patioan egin nahi den kirol gunea Nafarroko Kutzaren Zeuk aukeratu, zeuk erabarki'egitasmoaren barne dago, eta laguntzeko zenbakia 15.187 da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Neska-mutikoak ludotekan

Ludoteka zerbitzua ere abian da eta herriko neska-mutikoak astean bi egunetan ordutebetez egoten dira Amaia begiralearekin. Argazkian agerienez pozik eta gustura dabilta.

EUSKARA

Profesional euskaldunen gida osatuko du UEMAK

ttipi-ttapa

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak profesional euskaldunen gida osatzeko informazioa biltzeari ekin dio, udal eta herritar euskaldunek profesionalen beharra daukatenean nora jo jakin dezaten. Gisa berean, gidan sartzen diren enpresek baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeaz ere arduratuko dira, hau da, gidan sartu aitzinetik euskarazko zerbitzua emateko gai diren frogatuko da. Elkargo profesionalak UEMAREN gidan sartzeko aukera daukate, baina horrez gain, UEMAK informazio iturriak zabaldu egin ditu. Euskal Herriko udal guztietara jo du datu eske, gidan sartzeko egokiak izan daitezkeen guztiek lekua izan dezaten. Behin datu guztiak jasotzean, eta ahozko zein idatzizko euskarazko tratua bermatuta, gidan dauden profesionalen zerrenda pasatuko dute UEMAKo udalerrri guztietara. Informazio guztia UEMAREN webgunean dago eskura eskura: www.ue-ma.org. Gainera, web orriaren bidez profesionalak zuzenean eman dezakete izena.



SOULE

hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN



J. RAMOS

zolak akutxilatatu eta barnizatzen dituz

Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA



Instalazio elektrikoak
Mantaketak
Mantentze industriala
Sare elektrikoaren analisia

Latsaga, 22 - 3.Esk. - IGANTZI - 948 637 607 - 687 871 444

IngeBrand

Fernando Osovaldo Echeverria
Elektrikari-Ingeniaria

fernando@ingebrand.com

LEITZA

300.000 euroko aurrekontua duten abeltzaintzako azpiegitura lanak egingen ditu Udalak

Hainbat aska berri paratuko dira eta bideetan ere konponketa lanak egingen dira

ttipi-ttapa

Abeltzaintzarako erabiltzen diren hainbat bide egoera kaskarrean daudelako eta aziendek ura edateko toki gutxi ditzutelako, obra batzuk egingen ditu Udalak. 300.000 euroko aurrekontua izanen dute eta Nafarroako Gobernuaren eta Accionaren laguntza jasoko da.

Ureskasiari aurre egiteko, Urdolako iturritik ura hartuta, Urdola Txikin aska berria egingen da. Horrez gain, Mendibilen eta Urkizun ere aska berriak eraikiko dira, eta Aritzen orain dagoena berrituko da. Bestalde, hainbat bideetan ere konponketak egingen dira. Amurrixezko larrerako bidea, esaterako, moldatu egingen da, abeltzainei garraioa errazteko. Arizkolarrerako bidean, bi kilometroko zatian egingen dira obrak. Astaitzaga parean, berriz, bihurgunea zabalduko da. Inguru horretan egoera kaskarrean dauden beste bide zatiak ere badira, eta horietan ere lanak egingen dira. Hala, Astibi aldean bihurgunea egokitu eta harri lubeta berrituko da.

Berriemaile bila

Hamabostean behin Leitza kronika egiteko berriemaile behar du ttipi-ttapa. Horretarako, erredakzioarekin jarri behar da harremanetan, 948 635458ra deituz. Gisa berean, herrian sortzen diren beste berriak ttipi-ttapan agertzea nahi baduzue, helbide honetara idatz dezakezue: info@ttipi.net. Edo besteala, 948 635458ra deitu.

max ⁺
cuenta | kontua

%
U.T.B.

5

Udazkenean ere erortzen ez den interesa

ERABILGARRITASUNAREKIN ETA KOMISIORIK GABE

Abenduaren 31 arte
Gehienezko zenbatekoa 10.000€

Interesa %5 U.T.B. (%4.889 nominala).
Urriaren Tetik abenduaren 31 arteko irakurterarako.
Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko gutxienezko zenbatekoa: 2.000€.
Ohiko onlainsaria: %3,25 U.T.B. (%3.203 nominala).
Helbideratzaak ez ditu onartzen.

BAZTAN

Francisco Joakin Iriarte karrikan espaloiak egiten ari dira

Lanen aurrekontua 65.234,59 eurokoa izanen da

Maite OTEIZA

Elizondoko Zahar-Etxetik sartu eta Osasun Zentroraino ailegatzten den Francisco Javier Iriarte karrikan moldaketa lanetan ari dira. Karrika honetatik trafiko handia ibiltzen da egunean zehar, Osasun Zentroa, Baztan Haur Eskola, Zahar-Etxerako sarrera eta behitiko karrikarat doan pasabidea hor baitira.

Norabide bikoitzeko kalea izanda, traba aunitz zituen. Toki horretan zein zentro dauden erreparatu, ohartuko gara oinezko gehienak adineko jendea eta haur ttikien gurasoak direla. Beraiantzat ez zegoen ibiltzeko espaloirik eta aunitzetan bi kotxe guruzatzerakoan baztertu egin behar ziren.

Arazo honi konponbidea emateko, Zahar-Etxea, Haur Eskola eta Osasun Zentroari lurzati bana kendu egin zaie, espaloiak egiteko asmoarekin. Obraren aurrekontua 65.234,59 eurokoa da.

Iruritako elizako dorrean lanean

Iruritako elizako dorrean garbiketaren lanetan ari dira. Aspaldiko be-

lar, adar eta zuhaixkek dorrearen itxura itsustean gain, etorkizunearriskua ekar zezaketela ere ikusten zen, sus-traiek pareta harrotuko zutenaren beldurrez.

Lan honek ikusmen handia sortu du herrian, ez baitute obretako ohiko andamiorik era-

biltzen; soka gorri batzuk baizik. Dorreko kaxkoan hamabiren bat soka dilinde paratu ondoren, langileak arnesak jantzi, eta bertatik jaus-ten dira lanean hasteko prest. Berez, eskalatazailak dira, beren gus-tuko kirola lanbide bihurtu dutenak.

Baztan izena pintxo onenetan

Urriaren 8an egin zen Hego Euskal Herriko III. Pintxo Lehiaketa Hondarribian eta parte hartu zuten 60 sukaldariren artean, Taxoareko El Caserio de Baztan jateak bigarren saria eskuratu zuen.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Giltxaurdi futbol-zelaia azaro hondarrerako prest

Giltxaurdi futbol-zelaiko obrak martxa onean doaz, eta badirudi azaro erdialderako edo akaberarako erabiltzeko moduan izanen dela. Udalak Ecay Eraikuntza enpresari agindu zion obrak egiteko ardura, bi hilabeteko epea emanez eta 1.113.822 euroko aurrekontuarekin. 40. hamarkadan eraikia izan zen futbol-zelaia, eta geroztik belardi naturalarekin egon da, baina horrek zail egiten zuen hor jokatzeko. Hortaz, Lesakako Beti Gazteren Mastegi futbol-zelaian jokatzeko partidak Baztango futbolariak. Hemendik aitzinera, ordea, soropil artifiziala izanen du 100x60 metroko dimentsioak dituen Giltxaurdi zelaia. Horrekin batera, aldagelak ere berri-tu dira, eta jokalarientzako aulkiak ere eraiki dira.

IKASTAROA

Enpresa sortu eta bideragarria izateko tailerrak Arizkunenean

ttipi-ttapa

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ekimen- ez, norbere enpresa sortu eta bideragarria izan dadin laguntzeko doako tailerrak eskainiko ditu Cederna-Garalurrek Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Hiru ikastarotan banatu dute: *Zure enpresa sortu nahi duzu, Ongi ezagutzen al duzu martxan paratu nahi duzun enpresa?*, eta *Negozio ttikiaren kudeaketa*. Lehenengoan negozio-idea zehaztu ondotik, negozioa martxan paratzeko gaitasunak landuko dira. Azaroaren 11tik 14ra eta 18an eta 19an eskainiko da, 9:30etik 13:30era. Bigarren-ean, enpresa bidegarria izateko ezaugarriak aztertuko dira. Azaroaren 20an, 21ean, 27an eta 28an izanen da, 9:30etik 13:00etara. Hirugarrena negozioaren kontabilitatea informatikako programa batekin nola eraman daitekeen erakutsiko da. Bigarren tailerraren egune-tan emanen da, baina 14:00etatik 16:00etara. Izena emateko deitu 948 625122ra

POTTOKI

Baztanberri Plaza, 3 - beheak
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Telefono: 948 381 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astrolanenetik
larunbatara:
8:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Iñaki Alzuiet margoak

Fotografiak, Enbatazioak,
Dokumentazioa (estatu, lekuak, ...),
Pinturak - Laburak eta berrak
Nafarroa Ekialde - Leizorako Auzoa - 31711 UZKAZURRO
Telefono: 948 962 417

BAZTAN

1,1 milioi euro kostako dira Arizkungo zeharbidea berritzeko lanak

Gainera, Erratzura eta Arizkunera joateko dagoen bidegurutzean biribilgunea eraikiko da

ttipi-ttapa

Arizkungo zeharbidea eginen diren konponketa lanak egitea 1.132.717,95 euro kostako da. Kopuru horrekin, Arizkungo herrigunean bama pasatzen den errepidearen 550 metroak moldatuko dira eta Erratzutik Izpegira doan NA-2600 eta Arizkungo NA-2001 errepideen bidegurutzean biribilgunea eginen da bidearen segurtasuna hobetzeko.

Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak diruz lagunduko ditu obra hauek, eta horretarako 362.474,92 euroko laguntza onartu du 2009ko aurrekontuetan. Dirulaguntza hori Herri Lan, Garraio eta Komunikabidetako Departamentuak eta Udalak sinatu duten elkarlan hitzarmenaren barne dago.

Urteetan egin diren lanen poderioz, Arizkungo etxe aunitzen sarrera baino altuagoa da kaltetuta. Zeharbide be-

rriarekin arazo hori moldatuko da eta Arizkungo sareak berritzeko aprobetxatuko da. Zeharbideak bertz metroko zabalera izanen du gehienez, eta posible denean, metro banako espaloiak eginen dira bi aldeetan.

Ekimenak Lekarozko Institutuan

Ikasturte berriarekin batera, Lekarozko Institutuko Guraso Elkartea hasi da ekintzak antolatzen. Hala, azaroaren 4an, asteartea, 16:00etan sentsibilizazio hitzaldi bat izanen da ikasleen gurasoei zuzendua. Askagintza erakundeko kideek ematen dute hitzaldia. Talde honen helburuak hauek dira: batetik, droga eta drogamenpekotasun fenomenoaren inguruan informazioa eskaintzea eta bertetik, gurasoen kezka, zalantza... jaso eta erantzuten saiatzea.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Apustu ikusgarria Gartzainen

Bi baten kontra. Horrela egin zuten urriaren 18an Migel Angel Aleman eta Eduardo Danboriena gartzaindarrek Felipe Sarratea Xegone zigarraren aurkako apustua. Jendearen erantzuna ere ona izan eta ikusmin handia sortu zuen apustuak. Parte-hartzaileek Urballo mendira igo behar izan zuten lehenbizi, 17,2 kilometro eginez, eta gero aizkoran aritu ziren. Mendira bidean, Xegonek 40 kiloko zakua eraman zuen bizkarrean, eta Aleman eta Daborienak 20 kilokoa bakoitzak. Hiruetan azkarrena Danboriena izan zen, 2 ordu eta 5 minutuko denbora eginez; bigarrena Aleman izan zen, 2 ordu eta 25 minutuz egin zuen mendiko buelta. Xegonek, berriz, 2 ordu eta 42 minutu behar izan zituen. Hiru kanaerdiko ebaki behar izan zituzten gero. Bikote gartzaindarrak 2 ordu eta 40 minutuz akitu zituen lanak; eta Xegonek 2 ordu eta 57 minutuz. Txapelak soinean, bikotea gustura gelditu zen egindako lanarekin. Xegonek, berriz, zakuan 20 kiloko aldea izatea haundiegia zela zioen, eta enbor gehiago izatera irabaziko zuela. Edonola ere, saio polita eskaini zuten eta kontent gelditu ziren guztiak.

MENDI ostata
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
T-948 453 000
N-12 1-8.66 km
TAMAIUR

Maderas GOMEN
Tel. 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinus...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo - braulio iñarte 33, 1ºD - 31700
948250371 iñuñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Larunbat honetan hasi eta hilabetea akitu arte hainbat ekitaldi izanen dira

Larunbat honetan, *Salam* antzezlanak ikusteko aukera izanen da 17:00etan Zugarramurdi

Koro eta Margari

Udazken animatua dugu aurten. Urtero hortxe izaten ditugu ehiztariak beren saltsan, eta ondo bilatzaileak ere bere sasoinan, nahiz eta hauek franko uzta eskasa izaten ari diren. Horietaz gain, bertze ekitaldi batzuetan parte hartzeko aukerak ere baditugu. Urriaren 15ean, adibidez, Juan Zabala apezberriak txokolatada antolatu zuen Urdazubiko pilotalekuan bi herrietako haur eta guraso guztientzat. Alde batetik, elkar ezagutzeko aukera polita izan zen, eta bertze aldetik, katekesiari buruz hitz egiteko. Dagoeneko ekitaldi batzuk pasatuak badira ere, oraindik ere bada zerekin gozatu:

Azaroak 1, larunbata

- Zugarramurdiko Museoa, 17:00etan, *Salam* antzezlanak eskainiko da, Udazkeneko Biraren barne.

Azaroak ortziraletan

- Montxo ostatuan Mus Tximista Txapelketak. Hasteko ordua 21:45 da, eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu izena ematerako momentuan. Sariak hauek dira: bildots bat lehenbikoentzat eta sei arno botil bigarrenentzat.

Azaroak 29 eta 30

- Duela 400 urte izandako sorgin ehizari buruzko ekitaldiak. Hori buruzko xehetasunak aintzinerago emanen ditugu.


Aldaketak Guraso Elkartearen

Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako Guraso Elkartearen aldaketak izan dira berriki. Hemendik aitzinera, beraz, guraso berriak izanen dira elkarreko ordezkari. Atera direnak Fermi Etxart, Karmentxu Jaurena eta

Itziar Arburua dira. Sar-tu direnak, berriz, Blanca Verdu, Eli Garmendia eta Txaro Salas dira. Blanca lehendakaria izanen da; Eli diruzaina eta Txaro baztordekidea.

Konponketak Urdazubiko hilerrian

Larunbat hau, azaroak 1, Santu Guztien Eguna izanen da eta egun horretarako lan batzuk egin dira Urdazubiko hilerrian. Gurutzeara egoera kaxkarrean zegoen eta konpondu egin da. Azaroaren 1erako itxuraberritua gelditu da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zugarramurdiko sorginak Arabako artxibo historikoan

2008ko urriaren 30etik 2009ko urtarrilaren 12ra bitartean, Arabako Artxibo Historiko Probintzian *Sorginak: Zugarramurdi eta Inkisizioaren artxiboak* erakusketa eskainiko da. Erakusketan Euskal Herrian izan zen sorginkeriar buruzko zenbait agiri originalak ikusteko aukera izanen da, baita kondairak, mitoak, ohiturak eta inkisizioak sorginen aurka egindakoak ere. Ez da erakusketa arrunta izanen multimediak, eskenografiak, garaiko eraikinak eta software elkarreragile ezberdinekin osatuko baita. Herrian antolatzen ari diren 400. urteurreneko ekitaldien barnean, erakusketa hau ikustera joateko bidaia bat antolatzeko kontuak badaude.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Itarte karia
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Larkilana
ARKITEKTURA ETA INJENIERIA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea - 948 581 931
BERA - Eztegarra, 8 behea - 948 625 232

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatu

Tfnoa.: 948 581 488
Mug.: 630 354 818

Santiago, 58 3C
ELIZONDO

SARA

Usaian baino turista guttiago ibili da aurten udako hilabeteetan

Bertzalde, Mattin Oronoz da Gaztetzeko presidente berria

Xan HARRIAGUE

Turismo bulegoan, leizeetan eta Larrungo trenan aitzineko urteetan baino jende guttiago ibili da urtarriletik buruil hondarrera arte. Beherakada ezberdina izan da lekuen arabera, baina denek bisitariak galdu dituzte.

Buruilaren 30a arte 9.103 familia iragan dira turismo bulegotik herriri buruzko zehaztasunak galdetzeko, iaz baino 1.310 guttiago. Baina aitzineko bertze sei urteekin konparatuz, gehiago, ordura arte 9.000 familia baino gehiago ez baitziren sekula pasatu urteko lehen bederatzil hilabeteetan.

Leizeetan beherakada urrian izan da, dua bi urteko zenbakiekin konparatuz. Iaz hetsiak egon ziren uholdeen ondorioz. 2006an, 98.311 bisitari izan zituen buruil hondarrera arte, eta aurten epe berean 1.311 lagun guttiago ibili dira.

Hala ere, 2004an eta 2005ean baino turista gehiago hartu ditu.

Beharakada nabarmenena Larrungo trenan izan da. Buruilaren 30erako 285.000 bisitari igo zituen, iaz baino %15 gutxiago. 2007an, 323.000 lagunek hartu zuten urte osoan, baina aurten ez dirudi kopuru horretara arribatuko direnik. Azken urte hauetan hobereena Larrungo trenarentzat 2006a izan zen, orduan 363.000 lagunek hartu baitzuten trenan.

Ortilloplitzen, Etxola animalien parkean eta Euskal Pastelaren museoan ere zenbakiek ez dute gora egin. Lehenen bisitarien kopuruak %13 egin du behera, bigarrenen %5 eta azkenen egonkorra izan da.

Gaztetzeko presidente berria

Gaztetzeko urteko bil-

tzar nagusia egin du hilabete honetan. Emili Leizagoienek presidente kargua utzi du,

eta Mattin Oronozek hartu dio segida. Bulegoko gaineratiko leketan ez da aldaketa-

rik izan, eta Luxi Andiazabalek segitzen du diruzain, eta Ximun Garziak idazkari.



ARGAZKIAK: X. HARRIAGUE ETA I. UGALDE

Harrera ona izan du Olentzerok

Ehunka lagun hurbildu ziren urriaren 13tik 18ra bitartean Garbalara ikatza nola egiten den ikusteko. Horien artean ikasle andana joan zen Koldo ikazkinaren azalpenak entzutera.

MONTXO ОСТАТВА

Dantzarineatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА - ВРДАЗУБИ

Egutero irekia 10:30etik 02:30era

HERAINO
ETXENGO
EDANTZEGIE
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0259542319
Maitzen eta Vitorriaga

SARA

ARMUA JATETXEA

T: 948 600 131
Zuzendaritza eta 3 km
UPONKALDE

ZOANSA

SEAT
HYUNDAI
AUDI

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Berarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESACA (samera Beratik)

Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SENPERE

Animazio anitz herrian elkartean, artisten eta kirolarien artean

'Iratzeder' olerkari haundia pausatu da berriki 88 urterekin

Franck DOLOSOR

Uda bururatu da, baina mugimendu anitz bada beti halere Senperen. 5.100 lagun biltzen dituen gure herrian, animazio anitz izanena da ondoko egunetan. San Martin Egunean, munduko lehen gerlako gudariak omentzeaz gain, herriko elkarteek besta eguna izanzen dute. 52 elkarteek hitzordua dute elgar ezagutzeko errebotearren gibelean.

Bertzalde, lau zizelkarik prestatzen dituzten harriak Urdazuri ibaiaren ondoan den baratzeko publikoan eman dituzte berriki. Artistez gain edozein herritarrek ere parte hartzen ahalko du Herriko Etxeak antolatutako lehen argazki zoin-gehiagokan. 300 euroko

saria irabazi nahi duenak potreta ederrenak abenduaren 15a aitzin eman behar dizkio Herriko Etxeari.

Azkenik, kirolarien besta martxoaren 21ean egingen da 2009an. SPUC batasunak 230 pilotari, 180 errugbilari, 120 eskubaloin jokalaria, 25 lasterkari, 25 futbol jokalaria eta 30 arraunlari biltzen ditu.

Agur 'Iratzeder'

Eliza eta euskara, hauek izan ziren Xabier Diharce *Iratzeder* zena-ren biziaren ardatz nagusiak. Donibane Lohizuneko fraileak lotura zuzena zuen Senpererekin, gure herrian pasatzen baizituen udako bakanantzak eta orduan hobetzen baitzuen kostal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Adiskideen otruntzak

Aurten 60 urte bete dituzten senpertzarrek elgarretzaratzea egin dute berriki eta momentu goxoa bat pasa dute lagunaren artean.

dean arrotzen zitzaion ama hizkuntza. *Iratzeder* poeta haundiak atxikimendu haundia zuen Senpererekin eta senpertzarrek. 60 urtez lan haundia egin du olerkiak idatziz eta elizako euskarazko testuak prestatuz. Hamabortz urtez Belloceko monastegiko burua izan zen. *Iratzeder* ongi ezagutu dutenek diote olerkari zena gabe Euskal Herria arras desberdina izanen litzatekela. Euskaltzain zena urriaren 13an pausatu zen eta hiru egun geroago lur eman zioten.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

2003an, Euskal Kultur Erakundeak omenaldi kartsua egin zion *Iratzeder* olerkariari. Euskaltzaindikokidearen inguruan euskaltzale anitz bildu zen momentu eder bat pasatzeko, hauen artean Mañu Millox senpertzarra.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



kirol
gehigarria



Lindutx Baztan BKT talde nagusiak mailari eutsi nahi dio

Julian Baldanta entrenatzaile berriak «transizioko» denboraldi batean daudela uste du

Babesle nagusiaren izena aldatu du denboraldi honetan Baztango Kiroal Taldeak eta Lindutx-Baztan BKT izena eramanen dute. Baina ez da hori Lehen Maila Nazionalean ari den emakumezkoen taldeak izanen duen aldaketa bakarra. Julian Baldantak hartu du taldea entrenatzeko ardura eta azken denboraldiko helburua, Ohorezko Mailarako igoera faserako igotzea izan bada –baita lortu ere– aurten kategoria mantentzea izanen da. Julian Baldantak hori aisa lortuko dutela uste du, «*baina us-*

te bakarrik, gero kantxan erakutsi behar da». Hasiera ona eman diote Lindutx-Baztan BKTko neskek eta lehenbiziko hiru partidak irabazi dituzte. Entrenatzaile berriaren ustez, «*kategorian bertzeen gainetik lau talde daude eta bertze batzuk bosgarren-seigarren posturako lehia horretan izanen garela iruditzen zait. BK-Tren lehia hori izanen dela iruditzen zait eta ez dugula maila mantentzeko arazorik izanen*».

Baldantak esperientzia luzea dauka jokalarari bezala eta Iruñean, Beran eta Donezteben

aritu da. Baina entrenatzaile bezala lehen urtea du eta urduritasuna somatzen duela onartu du. Halere, berari gusatzzen zaion eskubaloi eredua ezarri nahi die Lindutx-Baztan BKTko neskei: «*Gibelerago defenditu eta, oinarri jakin batzuetatik abiatuta, erasoan askatasun gehiago eman, jarraipenak landu... Lehen mekanizatuagoa zena*». Bere aitzinetik izan direnen lana meritu handikoa izan dela uste du Baldantak, «*lana arras ongi egin da eta horretan segitu nahi dugu*». BKTko mutilen



ARGAZKIA: ONDIKOL

Lindutx-Baztan BKT eskubaloi taldeak ez du igoera faserako sailkatzeko asmorik aurten, baina jokaturako hiru lehenbiziko partidak irabazi ditu.

LINDUTX-BAZTAN BKT: 1. MAILA NAZIONALA

Talita DAIANA	BRASIL
Josune ITURZAETA BARNO	ELIZONDO
Itxaso SALABURU HUARTE	ELIZONDO
Izaskun DANBORIENA URRUTIA	ELIZONDO
Nerea GIL ZIAURRIZ	ELIZONDO
Ildiko VALAGZKAI	HUNGARIA
Kinga TOTH	Budapest (HUNGARIA)
Irati BERRUEZO CONDON	IRUÑA
Cristina IRISARRI VIEDMA	BARANAIN
Marijoxe ALEMAN ETXENIKE	IRURITA
Garazi ARRETXE ANANUA	GARTZAIN
Elisa ARRETXE URRUTIA	ELIZONDO
Entrenatzailea: Julian BALDANTA	
Laguntzailea: Itxaso SALABURU	
Delegatua: Jose Luis RUIZ MENDIBURU	
Prestazaila fisikoa: Idoia ARRUIZ BARRADO	
Fisioterapeuta: Elisa ARRETXE	

azken taldeko jokalaria izan zen eta berriz ere gustora ikusiko lituzke mutilen taldeak. Mo-

mentuz 100 neska baino gehiago ari dira BK-Trekin eta bi mutiko alebiretan.



Tfnoa: 948 59 24 14
 Faxes: 948 59 24 15
 Mug.: 629 407 895

ORNOZ-MUGAIRI



LINDUTX-BAZTAN BKT NAFARROAKO LIGA

Ines LABORRA BARRAU	ELIZONDO
Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Nerea MORTALENA MASKOTENA	ELIZONDO
Itziar GOIENETXE AGIRRE	ELIZONDO
Maitte RODRIGUEZ TELLETKEA	ELIZONDO
Oihane PRIM AGERREBERE	IRURITA
Ainara UNANUA ARIZMENDI	GARTZAIN
Naiara OTEIZA RAZKIN	ORONÓZ-MUGAIRI
Amaia IRIGOIEN CORDOBA	ELIZONDO
Garazi URTASUN	IRURITA
Maria IRAIZOZ	ULTZAMA
Ainhoa IRAIZOZ	ULTZAMA
Garbine GOÑI	ELIZONDO

Entrenatzailea: Enrique PETRIRENA



FOTO MENA ELIZONDO

BAZTANGO KIROL TALDEA 2. URTEKO KADETEAK

Sara OLAIZOLA EGURROLA	ELIZONDO
Amaia SANZ AZPIROZ	ELIZONDO
Ione MAIA DAGERRE	ELIZONDO
Cristina MERAYO AMAYA	ELIZONDO
Amaia MORTALENA MASKOTENA	ELIZONDO
Oihana SANTXOTENA SARRIA	ERRATZU
Laura JAEN PEREZ	ELBETE
Ana JAIMERENA AZKARRAGA	ELIZONDO
Rosa MINDEGIA PETRIRENA	ELIZONDO
Naiara IGARABIDE IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Kristina LOIARTE PEREZ	ELIZONDO
Maialen KAMINO ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Sara OTXANDORENA ZENOZ	GARTZAIN
Nerea FRIAS ITURRIA	ELIZONDO
Andrea KARRIKABURU RIPA	IRURITA

Entrenatzailea:

Iñaki URIARTE BALLARENA ERRATZU



FOTO MENA ELIZONDO

BAZTANGO KIROL TALDEA 1. URTEKO KADETEAK

Ane BALLARENA AÑORGA	ELIZONDO
Nagore IRIGOIEN IBARRA	ELIZONDO
Maitane BARBERENA GORTARI	ELIZONDO
Nerea ETXEBERRIA OSKARIZ	ELIZONDO
Amaia ASIAIN ZELAIA	BERROETA
Miren ARREGI MORTALENA	ELIZONDO
Izargi ZUMARRAGA ETXANDI	ARRAIOZ
Emma BERTIZ AYUSO	ELIZONDO
Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Loimaz ELIZEGI OTXANDORENA	GARTZAIN
Leire PACHEGO DOZAGARAT	ELIZONDO
Leire RAMOS IRAOLA	BERROETA
Kawana HORCHURIKI	BRASIL

Entrenatzailea:

Amalia SANDUTA Bucarest (ERRUMANIA)



FOTO MENA ELIZONDO

ARGAZKIAK: MENA

Nafarroako Ligan ari den taldeak eta kadete mailako bi taldeek jokalariz hornituko dute etorkizunean talde nagusia. Horretaz gain, jubenil adineko lau neska Doneztebeko Errekan utzita ari dira denboraldi honetan.

LEKAROZ-BAZTAN 2. URTEKO INFANTILAK

Intza GARTXITORENA URDANPILLETA	ELIZONDO
Ione KAMINO ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Idoia GARMENDIA ZUBIKOA	BERROETA
Iratxe ARRETKEA ETXEBERRIA	BERROETA
Ainhoa ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Lorea ARROABARREN ETXEBERRIA	ELIZONDO
Ainara ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Rakel PARDO PEREZ	URDAZUBI
Ana ANTXORENA SOBRINO	ARIZKUN
Amalur MARITORENA ETXENIKE	BERROETA
Amaia BERTIZ GAZTELUMENDI	ELIZONDO

Uhaina APEZETXE

Entrenatzailea:

Juanjo RAMOS



FOTO MENA ELIZONDO

LEKAROZ-BAZTAN 1. URTEKO INFANTILAK

Olaia ITURBIDE	
Ainhoa JUANIKORENA	BERROETA
Lorea ZIAURRIZ	
Lorea GOIENETXE	
Haizea MEOKI MTNEZ. DE IGAYA	ELIZONDO
Maria URRUTIA KARRIKABURU	ELIZONDO
Exabia KROSBY GONZALEZ	ELIZONDO
Laura RAMOS IRAOLA	BERROETA
Itsaso IRIARTE	ELIZONDO
Nerea HUALDE	
Udane KARRIKABURU	ELIZONDO
Amaia ZALDAIN	
Maialen GOÑI	
Maitte ELIZETXE	ELIZONDO
Kontxi AGINAGA	ELIZONDO
Nekane ETXEBERE	ELIZONDO

Entrenatzailea:

Ainara UNANUA eta Elisa ARRETKEA



FOTO MENA ELIZONDO

BAZTANGO KIROL TALDEA ALEBINAK

Amaia LOIARTE LOPEZ	ELIZONDO
Lierni OTEIZA	ORONÓZ-MUGAIRI
Itziar URRRA FERRANDEZ	ELIZONDO
Gorka LAURNAGA	ELIZONDO
Anne JAEN PEREZ	ELBETE
Andrea LIZASOAIN UTERGA	ELIZONDO
Garazi INZIARTE ARIZTEGI	ORONÓZ-MUGAIRI
Aintzane ARIZTEGI	
Maitte ARREGI ARRETKEA	ORONÓZ-MUGAIRI
Jone MITXELENA LAURNAGARAI	ELIZONDO
Anne GARMENDIA ZUBIKOA	ELIZONDO
Rocio GONZALEZ	ELBETE
Miguel EGURROLA OLABE	ELIZONDO
Nekane ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Saioa SANZ	ELIZONDO
Saioa ARRETKEA ETXEBERRIA	BERROETA
Leire ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Leire ETXEGOIEN	ELIZONDO
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Leire BARRENETXE SANCHEZ	AZPILKUETA

Entrenatzailea:

Totu ITURTZAETA BARNO ARIZKUN



FOTO MENA ELIZONDO

ARGAZIAK: MENA

Infantil mailan ere, Nafarroako Kirol Jolasetan Lekaroz-Elizondo izenarekin ari diren bi talde daude Baztanen. Alebin mailan, taldeko bi mutiko bakarrak dituzte. Denera ehun jokalaria baino gehiago ari dira aurten eskubaloian.



Errekako talde nagusiak iazko 5. postua hobetu nahi du

Edozein talderi lan emateko gai direla uste du Txomin Mindegia

Errekako eskubaloi talde seniorrak ongi hasi du denboraldia eta jokatutako bi partidak irabazi egin ditu. Iaz, hasiera kaxkar baten ondoren bosgarren izan zirela kontuan hartuz, «postu hori hobetzea» izanen litzateke Txomin Mindegiaren lehen helburua. Baina ez dio taldeari mugarik ezarri nahi. Eguneroko lanean oinarrituta, jokalariek ongi pasatzea nahi du, «jokalaria dibertitzen denean, majo jokatzen ari dela erran nahi baitu». Badirudi denboraldi hasiera honetan, bederen, hori lortzen ari dela Erreka. «Hagitz ongi ari ga-

ra –dio Txominek– *uste baino hobekiago. Iaz hartu genuen oinarria, oinarrizko mugimenduak barneratu genituen eta aurten horren gainean ari gara lanean, horiek zehazten eta hobetzen, lan espezifikoa gehiago egiten...».*

Hori horrela izanik, edozein talderi lana emateko gai dela Erreka uste du entrenatzaileak, «baina besoak jausten baditugu, edozeinen kontra galdu dezakegu».

Taldean garrantzitsuak ziren Sergio Blanco, Julian Baldanta eta Txus Irigoienek taldea utzi badute ere, Iban Ez-

kurra etorri da eta «lesiotik ateratzen bada, jokalaria garrantzitsua» izan daitekeela uste du Txominek. «Jose Mari Gartziarena atezaina ere berreskuratzen badugu, Koldo Legarrarekin batera atea ongi zaindua izanen dugu».

Aurten, konpetizioetan ariko diren borts talde izanen ditu Errekak. Horretaz gain, oraindik lehiari sartu ez diren, baina entrenamenduan ari diren benjamin eta alebin mailako nesken eta mutikoen taldeak dituzte. Bederatzi talde guzira. Hori berri pozgarria bada ere, zenbait adinetan «haurren



ARGAZKIA: AITOR A.

Errekako talde nagusia «uste baino hobeki» hasi dela aipatu digu Txomin Mindegia entrenatzaileak.

ERREKA SENIOR 2. MAILA NAZIONALA

Koldo LEGARRA ERASUN	DONEZTEBE
Juan Mari ARTAZKOZ LAZKANO	DONEZTEBE
Joseba LEGARRA ERASUN	DONEZTEBE
Javier DEL VILLAR PEGUERO	NARBARTE
Fermin DEL VILLAR PEGUERO	NARBARTE
BINGEN LARREA LEKUBERRIA	ZUBIETA
JULEN JUANKORENA IPARRAGIRRE	SUNBILLA
UNAI BERAU MUTUBERRIA	SUNBILLA
JON ARANBILLET GALZAGORRI	SUNBILLA
Liber LASTIRI ARANBARRI	SUNBILLA
XUBAN ETXEGIA ETXEBESTE	SUNBILLA
JOSU MITXEO OTEIZA	GAZTELU
Entrenatzaileak: Fermin ETXEKOLONEA	



ARGAZKIA: ZALDUA

Domeztebeko alebinak, Nafarroako futbol-7 ligan ari dira.

DONEZTEBE F.T. NESKAK

ANA SARRATEA ARREGUI	DONEZTEBE
SARA AZKARATE ELIZONDO	DONEZTEBE
ELENA ZABALA EZKURRA	DONEZTEBE
LAURA ERASUN ELIZONDO	DONEZTEBE
TAMARA DESCALZO OKBA	DONEZTEBE
NEKANE IRURETAGOJENA ARREGUI	DONEZTEBE
ITXASO ARRIETA AGUIRRE	SUNBILLA
IRATI ARRIETA AGUIRRE	SUNBILLA
AINHUA LARREA LEKUBERRIA	ZUBIETA
MAIDER LEIZEAGA UNSAIN	ZUBIETA
IZARO SUKILBIDE MARTIN	ELGORRIAGA
ITXASO IRIARTE IRATZOKI	NARBARTE
AMAIA ELIZAGOJEN BARELA	ORONÓZ-MUGAIRI
AMAIA ISTILART ETXEBERRIA	AMAJUR
Entrenatzaileak: Aritz ARRIOLA GAPDEQUI eta Mikel IBARRA IBARRA	



ARGAZKIA: ZALDUA

Domeztebeko neskek urtebete daramate entrenatzen.

Gizonen senior taldea kantxan du berriz ere Berako Toki Ona Bortziriak

Federatutako sei talde izanen ditu aurten, gehienak neskenak

Kasik hamarkada bat darama saskibaloia eza-gutarazteko eta indartzeko lanean Berako Toki-Ona Bortziriak taldea. Gero eta indar gehiago duela nabarmentzeko, aurten federatutako sei talde izanen ditu eta gero eta gehiago dira Bortziritan saskibaloian ari direnak. Horieta bat, gainera, gizonezkoen senior mailakoa izanen da. Duela hiru urte arte izan zen talde hori baina Nafarroako bigarren mailatik lehen mailara igo ondotik, desagertu egin zen. Orain, bigarren aldiari indartsu ekin

diote, hamabi jokalarirekin eta jokatutako hiru partidak irabaziz. Taldea kudeatzen duen Jesus Alaciden erranetan, «*helburua berriz ere mailaz igotzea izanen da*». Horretarako, lehen ere aritutako jokalariekin batera, jokalaria gazteak eta Irungo taldetan aritutakoak bildu dituzte. Hurrengo denboraldirako gazte gehiago sartzea ere nahi dute.

Baina gizasemeen taldea izanagatik, Toki-Ona Bortziriak «*gero eta gehiago nesken taldea*» dela onartu du Alacidek. Beheitiko kategorietan,

TOKI-ONA BORTZIRIAK: JUNIOR NESKAK

Begoña TAPIA ALTZUGUREN	BERA
Clara ZIA DANBORIENA	BERA
Maialen TXANTRE IRATZOKI	BERA
Leire ZIA DANBORIENA	BERA
Elixabet IRATZOKI ZELAJETA	BERA
Leire ELTZAUDIA MENDIBERRI	BERA
Amaia IZQUIERDO AGIRRE	BERA
Marian MUSGO DOMINGUEZ	BERA
Maria IRIGOIEN MATXIARENA	BERA
Christina BERGMAN	ETXALAR
Maialen MIKELARENA BENGOTXEA	BERA
Entrenatzailea: Jesus ALACID CLEMENTE	BERA

UTZITAKO ARGAZKIA

Junior mailako neskek lan zaila izanen dute aurten, iaz denak kadeteak zirela kontuan hartuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru urteko hutsunearen ondotik, berriz ere gizasemeen senior mailako saskibaloia taldea kantxaratu du Toki-Ona Bortziriak saskibaloia taldeak.

TOKI-ONA BORTZIRIAK: SENIOR MUTILAK

Unai BANGO ELIZALDE	LESAKA
Fermin BERRUETA PEREZ	BERA
Ignacio DELGADO IBARRA	IRUN
Borja EZEIZABARRENA BERGARETXE	IRUN
Jose Maria ETXABE SANZ	BERA
Julen ESPINOSA MARTINEZ	BERA
Imanol ETXEBERRIA GARCIA	LESAKA
Ion IRATZOKI MARTIKORENA	BERA
Mikel IRATZOKI BELARRA	BERA
Iker JUAREZ IRAOLA	BERA
Mikel MARITXALAR BERRUETA	LESAKA
Ruben TORRE MINDEGIA	BERA
Entrenatzailea: Roger Alan BERGMAN	ETXALAR
2. entrenatzailea: Imanol ETXEBERRIA GARCIA	LESAKA

aurten, 1998an eta 1999an sortutako neska hasi dira eta Jesus Alaciden ustez, «*funtszkoa da preminibasket kategorian hastea, adin horrekin hartzen duten formakuntza ondoko urteetan nabarituiko baita*». 1996an sortutakoetan, aldiz, zortzi neska bakarrik dituzte eta parte hartzeko deia egiten dute taldetik.

Alde horretatik, aipatzekoa da aurten Lesaka eta Igantziko neska ere hasi direla eta

bertze herrietatik animatzea nahi dute. Laguntzaileen (entrena-

tzaile, epaile, mahaikoak...) formakuntzan ere lanean ari dira.





TOKI-ONA BORTZIRIAK: INFANTIL NESKAK

Dunia ATABAL ALTZUGUREN	BERA
Hegoa TELLETXEA ANDUEZA	BERA
Alaitz AGUILAR LAZKANOTEGI	BERA
Irati ERRANDONEA ZOZAIA	BERA
Jaione ETXABE SANZ	BERA
Maddi UGALDE ELTZAUDIA	BERA
Maria BERGARA SILES	BERA
Idoia MARTINEZ AGIRRE	BERA
Jone ORMAETXEA SANZ	BERA
Ane SIRERA IBARLUZEA	IGANTZI
Adriana ZANDIO PAGOLA	BERA
Entrenatzailea: Roger Alan BERGMAN	ETXALAR



TOKI-ONA BORTZIRIAK: AURREINFANTIL NESKAK

Jenifer ZELAIETA LAZKANO	BERA
Julene ORTEGA ALTZUGUREN	BERA
Ane ELTZAUDIA MENTABERRI	BERA
Ainhoa LARRETXE AGIRRE	BERA
Sara MARITXALAR SALABERRI	BERA
Lierni TOLOSA BURLADA	BERA
Naroa TOLOSA BURLADA	BERA
Iratz UDAETA ZUBIETA	BERA
Entrenatzailea: Imanol ETXEBERRIA GARCIA	LESAKA
2. Entrenatzailea: Maialen TXANTRE IRATZOKI	BERA



TOKI-ONA BORTZIRIAK: MINIBASKET NESKAK

MAIDER FAGOAGA EUGUI	BERA
JANIRE ANDRES ZAPIAIN	BERA
IRATI GARAIAR ARA	BERA
ANE BERASAIN GOIA	BERA
OIHANA ELZAURDIA ARIZTIA	BERA
NAHIA FAGOAGA MORENO	BERA
AINHOA BERASATEGI ARTIEDA	BERA
MAITE ARRAZTOA LAZKANOTEGI	BERA
IZASKUN REKARTE BENGOETXEA	BERA
SARA ETXEGARAI ETXEGARAI	BERA
RAQUEL ETXEGARAI ETXEGARAI	BERA
Entrenatzailea: Jesus ALACID GLEMENTE	BERA
2. Entrenatzailea: Andrea IRAZOKI GUIMON	BERA



ARG: AITOR A.

TOKI-ONA BORTZIRIAK: PREMINIBASKET NESKAK

ARANTXA SESE AGARA	BERA
AINHOA AGUILAR LAZKANOTEGI	BERA
UXUE ZELAIETA DANBORIENA	BERA
UXUE ANTZIZAR IRATZOKI	BERA
HAIZEA AYUSO IGLESIAS	BERA
KAREN CAEZ CABRERA	BERA
ANDREA ABAD ORMAZABAL	LESAKA
MATIXA TELLETXEA ELIZONDO	LESAKA
SARA ALBERDI ELORRIAGA	LESAKA
DOMINIKA STASOVA	LESAKA
JAIONE GUTIERREZ	BERA
SAIOA IRAZU ARRUTI	BERA
NESKUR ETXENIKE IANTZI	LESAKA
OLATZ MITXELENA SAGASTIBELTZA	BERA
Entrenatzailea: Antonio AGUILAR MTNEZ DE ARTOLA	BERA
2. entrenatzailea: Maria IRIGOIEN MATXIARENA	BERA



Gure Txokoako areto-futbol taldeak indartsu hasi du liga

Halere, ez dute lehen mailara igotzeko asmorik, baldintza berezi gehiegi eskatzen dutelako

Berako Gure Txokoako areto-futbol taldeak liga hasiera ona egin du eta hau idazterakoan jokaturako lau partidetan, oraindik ez daki galtzea zer den: bi irabazi eta bi berdindu egin ditu. Aritz Perez jokalaria beteranoak aipatu digunez, denboraldi bukaerako igoera fasea jokatzekeo klasifikatzearekin pozik izanen lirarteke. «Baina hori bai, hurrengo mailan jokatzekeo dauden baldintza bereziak direla eta ez dugu mailaz igotzeko in-tentziorik». Izan ere, Le-

hen Mailan aritzeko entrenatzaile titulua eskatzen dute, baina Aritzen erranetan, «ez hori bakarrik, ortziraletan jokatzekeo debekua eta 21 urtez beheitiko hiru jokalaria plantillan egotea eskatzen dute. Profesionalak ez garela kontutan hartuta, baldintza gehiegi, eta horregatik gauden mailan ongi gaude».

Aurtengo denboraldirako jokalaria guttiago ditu Gure Txokoako areto futbol taldeak eta horregatik, jokatzekeo go-geokin dagoen guzia-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Gure Txokoako areto-futbol taldeak ongi hasi du denboraldia, jokaturako lau partidetan ez baitaki oraindik galtzea zer den.

rentzat ateak zabalik ditzutela aipatu digu Aritzek. Entrenamenduak astearte eta ortzegunetan egiten dituzte Berako Toki-Ona kiroldegian, arratseko 20:00etan. Momentuz, daudenekin segitu beharko dute: «Espero dut lesioekin zortea izatea eta horrelako arazorik ez izatea. Baina egia da, lanen tur-noek ere eragina dutela eta horregatik, fitxa gehiago egotea ez zen txarra izanena».

Urtetik urtera taldea osatzeko adina jende biltzea zaila, baina az-

GURE TXOKOA ARETO-FUTBOL TALDEA

Igor PANDO ARAMENDI	BERA
Sabino GOMEZ RODRIGUEZ	BERA
Aritz PEREZ ARTIEDA	BERA
Patziku ARTIEDA APEZTEGIA	BERA
Xabier IRIARTE SANSINENA	ETXALAR
Jose Luis TAPIA IGUZKIAGIRRE	BERA
Iñaki ENDARA PETRIRENA	BERA
Aitzol IRIZAR ARIZTIA	BERA
Beniat TABERNA TELLETXEA	BERA
Fernando GOMEZ COLINA	BERA
Jose Javier TELLETXEA SARRATEA	LEGASA
Delegatua: Jon ALTZUGUREN ERRANDONEA	BERA

ken urteetan talde beretsua mantentzen dute: «Azkeneko urteotan jokalaria berdinez osaturako taldea osatu dugu eta bloke hori manten-

tzen den bitartean ez dut arazorik ikusten. Hori bai, taldearekin konpromezua duten aurpegi berriak ikustea ez legoke batere gaizki».

 **Zelaieta**
Maquinaria de panaderia • Bakery machines

Zalain industrialdea, 19. Postakutxa · BERA
Tel.: 948 631 004 · Fax: 948 631 308
e-posta: info@zelaieta.com
www.zelaieta.com



ZELAIETA
TAILERRAK
okindegirako tresneria

EZKONTZAK

Francisco Jose Txoperena Aranibar eta **Itziar Etxarte Mikelestorena**, Berakoa eta Igantzikoa, urriaren 11n Beran.

Mikel Apaolaza Sanz eta **Veronica Delgado Uhart**e, Lakuntzakoa eta Iruñekoa, urriaren 4an Lesakan.

Joseba Miren Vicente Olano eta **Maite Agirre Barandiaran**, Leitzakoak, urriaren 16an Leitza.

Bautista Elizondo Iribarren eta **M^a Jose Etxeberria Elizegi**, Lekarozkoak, urriaren 4an Lekarozen.

Jose Miguel Alzuart Oteiza eta **Lorea Hermoso Andueza**, Arraiozkoa eta Iruñekoa, irailaren 27an Arraiozen.

Josu Oiarzabal Zapirain eta **Idoia Udaibe Pagola**, Erreñterria eta Usurbilgoa, irailaren 27an Igantzin.

Pablo Maritxalar Etxenike eta **Maitane Ibarra San Martin**, Sunbillakoak, urriaren 4an Sunbillan.

Juan Migel Ariztegi Etxenike eta **Maidel Maillot Zedarr**i, Zugarramurdi eta Ezpeletakoa, urriaren 18an Zugarramurdi.

Tote Etxeberrigarai eta **Marie Christine Lartigau**, urriaren 4an Saran.

Nikolas Dillenbourg eta **Rachel Pe-deufourcq**, urriaren 4an Saran.

Jean Paul Wacogle eta **Martin Maria Magdalena Gartzia**, urriaren 11n Saran.

SORTZEAK

Narrea Zozaia Juanena, Urrozkoa, urriaren 4an.

Haizea Baraibar Goñi, Aresokoa, irailaren 29an.

Ariane Galarregi Gelbentzu, Elgorriagakoa, urriaren 3an.

Beñat Zelaieta Egia, Lesakakoa, urriaren 8an.

Julyeth Rebeca Amaguaña Muenala, Leitzakoa, urriaren 13an.

Sebastian Chindris, Leitzakoa, urriaren 13an.

Johani Rocio Pineda Rodriguez, Elizondokoa, irailaren 27an.

Iradi Gamio Juankorena, Iuritakoa, urriaren 9an.

Uxue Goñi Bidegain, Elizondokoa, urriaren 7an.

Unai Iñarrea Iguzkiagirre, Igantzikoa, urriaren 7an.

Onaitz Pradere, Sarakoa, urriaren 1ean.

Dorrian Torres, Sarakoa, urriaren 2an.

Eneko Semerena Amorena, Sarakoa, urriaren 3an.

Lola Latxague, Sarakoa, urriaren 7an.

HERIOTZAK

Juan Jubera Luzarreta, Zigakoa, urriaren 8an, 81 urte.

Elena Genua Bazterretxea, Doneztekakoa, urriaren 10ean, 87 urte.

Victoria Juankorena Irungarai, Arraiozkoa, urriaren 13an, 84 urte.

Radomir Kozarek, Lesakan, urriaren 11n, 46 urte.

Fermína Arakues Arranz, Lesakakoa, urriaren 10ean, 87 urte.

Maria Arretxea Maia, Berakoa, urriaren 14an, 83 urte.

Jose Baleztena Petrikorena, Zubietakoa, urriaren 11n, 60 urte.

Dolores Belarra Mokoroa, Doneztekakoa, urriaren 13an, 97 urte.

Concepcion Goietetxe Arizaleta, Zigakoa, urriaren 16an, 79 urte.

Florentino Mariñelarena Legazkue, Donamariakoa, urriaren 17an, 82 urte.

Benito Sukuntza Barriola, Leitzakoa, urriaren 18an, 88 urte.

Mariluz Ordoki Etxeberria, Lesakakoa, urriaren 21ean, 90 urte.

Lucia Galan Utande, Beran, urriaren 22an, 92 urte.

Santos Lopez Pina, Berakoa, urriaren 22an, 55 urte.



Jose Mari BERRUETA ZUBIETA

Etxalarren, 2004ko urriaren 31n

IV. URTEURRENA

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.*

ZURE FAMILIA

Asier TELLETXEA TELLETXEA

Zubietan, 1979-XII-09/2005-X-29

III. URTEURRENA

*Hemen daukagu udazkena
Zure urtaroeetan azkena
Gogoratze hutsak
Ematen digu pena
Bizitzen hasi orduko
Hain abudo etena.*

*Ahal izanez gero,
Aldatuko genuke dena
Geroztikan daukagu
Nahasturik sena
Zure irudiarekin
Samintasunik latzena*



*Zerua begiratzen dugu gauero
Zutaz oroitzen gara egunero
Zuk maite izatea dugu espero
Guk maite zaitugun bezain bero.*

FAMILIA ETA LAGUNAK

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

HERRI KIROLAK

Herri kirolean ikasteko kluba eratu dute Larretxeatarrek

Gure Kirolen Kluba du izena eta Oronoz-Mugairin entrenatzen dute

ttipi-ttapa

Futbola, pilota, esku-baloia, saskibaloia... Ez dira gutti kirola egiteko aukerak. Horietako aunitzetan aritzeko ez da inolako trabarik izaten; laguntzak eta instalazioak badira entrenatu eta jokatzeko. Aitzitik, ez da gauza bera gertatzen herri kirolean. Aukerak murriztagoak dira.

Tradizio eta garrantzi haundikoak dira herri kirolak Euskal Herrian, eta gure eskualdean ere hala da. Bada horri segida eman nahi dionik ere, eta jendeak herri kirolean ikas dezan aitzinera-pausua eman dute Patxi eta Donato Larretxea anaiek: Gure Kirolen Kluba sortu dute.

«Behartuak bezala sentitzen ginen kluba sortzera, Oronoz-Mugairin dugun egoitzari izena emateko. Jende saila hasia da hemen elkartzen eta honi izen bat eman behar genion». Horrela dio Patxi. Aitzinera begira, lanean segitu nahi dute, eta nahi duenari joateko gonbi-

dapena egin diote.

Helburua ere argi dute: «herri kirolean aritzeko asmoz datorren jende gazteari erakustea», aipatu digu Donatok. «Gu adinean goiti goaz, baina nahi duenari erakusteko prest gaude».

ADINEAN MUGARIK EZ

Herri kirolen eskola dela erraten ahal da, eta parte hartzeko adinik ez dagoela argitu digute Larretxeatarrek: «Oraingoz haurrik ez dago. Gazteenak 16-17 urte ditu eta zaharrenak 71». Aiako Joxe Leon Iruntxerri-taz ari dira, noski. Lasterka eta aizkoran ospetsua egin zen bere garaian eta hainbat aikolari-erakusle izana da. Bere jakinduria gazteei erakusteko gogoz dago hau ere.

FEDERAZIOAREKIN

«DEUS IKUSTEKORIK EZ» Nafarroako Herri Kirol Federazioak ttikienak kirol hauetan hasteko Herri Kirol Jolasak antolatzen ditu urtero. Nola-baiteko konpetentzia ote den galdetuta, ezezkoa erantzun digu Donatok: «Ez du deus ikustekorik. Federazioak bere gauzak antolatzen ditu, bere txapelketak... Hau aparteko zerbait da: nahi duenak badu lekua hemen ikasteko, entrenatzeko... Entrenatuz, errezagoa delako aitzinera ateratzea».

Harri-jasotzen, aizkoran —altueran zein lurrean—, arpanean —barkarka nahiz binaka—, txinga eramaten... Hainbertze kirolean aritzeko aukera ematen du Gure Kirolen Klubak Oronoz-Mugairiko bere txokoran.


KIROL GATESTIAK?

Materiala lortzeko, finantziarako edo laguntzak lortzeko bide bat izan ahal da elkarre bezala izen ematea. Donatoren erranetan, «orain arte ez dute deus eman, baina orain ikusiko dugu enpresak mugitzen diren, gastuak estaltzeko adina».

Izan ere, aizkoran eta arpanean aritzeko elkarrearen egoitzan biltzen direnak kontuan hartuz, urtean 30.000 euro inguruko gastua sortzen dela aipatu digu Patxi. Horretaz aparte tresnak daude. Arpanak, erraterako, garestiak dira, 1.200 eta 1.400 euro artean balio dute eta Zelanda Berriko aizkora bakoitzak 350 euro balio ditu.

EDOZEINI IREKIA

Unai Bertiz sunbildarra eta Xabier Ariztegi etxalartarra aritzen dira harri-jasotzen; Ariztegi bera eta Asier Bertiz sunbildarra Larretxeatar familia osoarekin aizkoran; Lurdes Galarregi eta Izaskun Ariztegi etxalartarrak arpanean... Baina herri kirolean hasi, trebatu eta entrenatu nahi duen guziak badu lekua Oronoz-Mugairin, Gure Kirolen Klubean.



• Aizkoran, arpanean, txingarekin, harri-jasotzen... Herri kirola edozein dela-ere, erakusteko prest gaude.

• Oraingoz klubean daudenak 16 eta 71 urte artekoak dira. Baina nahi dutenei Oronoz-Mugairiko txokora joateko deia egin diete.

• Herri kirolean aritzea garesti atera daiteke. Arpanek, erraterako, 1.200-1.400 euro artean balio dute.



MOTORRA

Espainiako txapelketan bigarren postua lortuz akitu du denboraldia Mariezkurrenak

Europa mailan 14.a izan da Doneztebeko kamioi-gidaria

ttipi-ttapa

Espainiako azpitxaldun geldituz akitu du denboraldia Javier Mariezkurrena Doneztebeko kamioi-gidariak. Denboraldiko azken lasterketak Madrilgo Jarama zirkuituan egin zituen urriko lehen aste hondarrean. 38.000 ikusle bildu ziren Europako Zirkuituko kamioien Formula 1 lasterketak ikustera. Guzira 35 kamioiok parte hartu zuten.

Urriaren 4ko lehenbiziko saioan 12. postua eskuratu zuen Mariezkurrenak eta 10.a kopa bigarrenaren. Emaizta onak izan ziren, kontuan

hartuz, kamioiak suspentsio arazoak zituela, balaztak egiteko beharrezko material berezirik topatu ez zutelako.

Biharamunean, hilak 5, lehenbiziko karreraren meritu handiko 9. postua lortu zuen Mariezkurrenak. Aitzineko gauean zenbait moldaketa egin ondotik, kamioia hobeki ibili zen. Bigarren lasterketan, berriz, 12. postua lortu zuen Doneztebe-koak. Halere, autoblokantereekin arazo bat izan zuen kamioiak eta azken itzulian olio-putzu bat zanpatu ondotik tronpoa egiteagatik postu bat galdu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mariezkurra doneztebarra Albacete Espainiako txapeldunaren ondoan.

Asteburu horretan bigarren aldiz igo zen Javier Mariezkurrena podiumera. Larunbatean, Espainiako txapelketan azpitxaldun izateagatik eta bertze horrenbertzeigandean.

Azkenean, beraz, Espainiako txapelketan bigarren izan da, Antonio Albaceteren ondotik. Biek Man kamioia gidatu dute. Hirugarren postua Mercedes gidatzen zuen Jose Bermejoren zat izan zen.

EUROPAN 14.A

Europako txapelketan, berriz, 14. postua eskuratu dute Mariezkurrenak eta Ederki taldeak. Europen, Bugyra gidatzen zuten David Vresky eta Markus Bosiger izan dira onenak eta Antonio Albacete berak osatu dute podiuma.

Edonola ere, balantze positiboa egin du Doneztebeko eskuderiak. Izan ere, ekainean istripua izan zuten eta horren ondorioz, bi karre-

retan ez zuten parte hartzerik izan.

2009AN BERRIRO LANEAN

Heldu den urteari begira, txapelketetan segitzeko gogoz daude gidaria, baita taldea ere, eta aurrekontua estaltzeko, berriz ere laguntzaileen premia izanen dutela adierazi dute. Bide batez, aurtengoan laguntza eman dieten enpresei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

AIZKORA

Bigarren mailan ariko da heldu den denboraldian Ander Erasun

III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako finalean bigarren izan da

ttipi-ttapa

Aitzol Atutxa (Dima, Bizkaia) txapeldunarengandik 2 minutu eta 5 segundora gelditu zen Ander Erasun aurtiztarra III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketaren finalean. Altsasan jokatu zen urriaren 18an, eta txapeldunordea izanagatik, hurrengo denboraldian

bigarren mailan aritzeko aukera izanen du.

Sei aizkolari aritu ziren lehen: Aitzol Atutxa, Ander Erasun, Aratz Mugertza (Mutriku, Gipuzkoa), Raul Kastro (Urrotz), Jexux Etxeberria (Beintza-Labaien) eta Asier Pellejero (Areso).

Hasieratik nagusitu zen Atutxa, iazko txapel-

dunordea, eta bertze aizkolariekiko alde handitzen joan zen. Azkenean 12:25eko denbora egin zuen bizkaitarrak eta 14:40koa Erasunek. Hirugarren Mugertza sailkatu zen 15:09ko denbora eginez; laugarren Kastro (15:39); bortzgarren Etxeberria (15:45) eta Pellejero seigarren (18:34).



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bigarren egurrean adarra atera zitzaion Erasuni.

AGENDA
egunez
egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IKASTAROK**LESAKA**

Azaroaren 4tik 27ra, enpresa kudeatzen ikasteko ikastaroa. Izena emateko deitu 948 625122 telefonora.

ELIZONDO

Azaroaren 11tik 28ra enpresa sortu eta bideragarria izateko tailerrak Arizkunenea Kultur Etxean. Izena emateko: 948 625122 telefonora. Informazio gehiago 20. orrialdean.

HAURRENTZAKO AISIALDIA**BERA**

Urriaren 31n, Ines Bengoaren eskutik, *Karabi-Karabi* haurrentzako ipuin kontalaria 18:00etan Udal Liburutegian. **Azaroaren 9an**, Txan magoaren ikuskizuna Labiaga Ikastolak antolatuta. 17:00etan Kultur Etxean.

ARANTZA

Azaroaren 2an, Anne Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen eskutik, *Ino, Ino, Ino, Badator Bonbardino* haurrentzako antzerkia. 17:30ean eskolako gimnasioan.

LEHIAKETAK**BORTZIRIAK**

Azaroaren 28a bitarte, Bortzirietako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketa.

ARANO

Azaroaren 2a bitarte, Aranoko I. Argazki Lehiaketa.

ANTZERKIA**ZUGARRAMURDI**

Azaroaren 1ean, *Salam* antzezlanaren Sorginen Museoa, 17:00etan.

TELEBISTAKO TXOKOA**Arantzako Baserritarren Eguneko kontuak telebistan****BERTZALDE, AURTIZKO BESTAK ERE IKUSGAI**

Udazkena ailegatzearekin batera, hainbat azoka eta feria egiten dira gure inguruan. Elizondon hasi zen itzulia, urriaren 24an eta 25ean egindako feriek; urriaren 26an Beran Lurraren Eguna egin zen. Eta orain, Arantzaren txanda izanen da. Ortziral honetatik azaroaren 2ra bitarte, Kultur Egunak egingo dira, eta izanen diren ekitaldien artean Santu Guztiaren Egunean, azaroaren 1ean, Baserritarren Eguna egingo da. Urtero bezala, 10:00etatik aitzinera produktu eta eskulanen erakusketa izanen da frontoian, eta azkenean plazan. Hori guztia eta gehiago jasoko dute **TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO** kamarek.

DONAMARIAKO MOJEKIN SOLASEAN Hagitz bertzelako gaia landuko dute ortziral honetako, urriak 31, erreportajearen tartean. **TTIPI-TTAPA TELEBISTA** Donamariako komentuko Olatz eta Miren mojekin egongo da eta euren egunerokoaren berri emanen digute ilunabarreko albistegiaren ondotik, 20:15 aldera.

AURTIZKO BESTAK LASTER

Azaroaren 7tik 11ra San Martin bestak izanen dira Aurtitzen eta orduko ekitaldiak ere jasoko ditu **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**. Beraz, bes-tetako ekitaldi eta elkarrizketarik interesgarrienak etxeko telebistan ikusteko modua izanen dugu.

DISKAK*Y si rompo mi camino***DAMBA**

K DIGITAL, 2008

«*DAMBA* izaera mota bat da, behe behetik datorren musika, herrien sustraletatik, munduko musiketatik». Tradizioa eta modernitatea uztartuz hainbat estilorekin jorratu dute: runba, blues, punk, reggae, funk, rock, musika elektronikoa... Doinu biziak egin dituzte, eta testuak, berriz, eguneroko biziari, maitasunari, kezkei, ironiari, zintzotasunari eta poesiari buruzkoak dira. Urte hauetan izan diren bidaiak, elkarteak eta egin diren adiskideak dira abentura honen irteera puntua. Bi kontinentetako musikariek osaturiko lagun taldea da Damba; Euskal Herrietik hasi eta Kubaraino, Bartzelonatik Madrileraino, baita Paristik Venezuelaraino ere. Lehen diskoaren izenburuan dena laburbildua dago: *Y si rompo mi camino*. 11 abestiz osatua dago. Informazio gehiagorako: www.myspace.com/damba.com.

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (urriaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 30,00 € (=)

Zerri gizena
1,123€ kilo. (-0,030)

Zerramak:
0,580€ Kg/bizirik. (-0,020)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (=)

1.koa 3,77 (=)

2.koa 3,08 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,17 (=)

1.koa 3,87 (=)

2.koa 3,18 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 168,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,40/9,20

8-10 kilokoak: 7,10/7,60

JAKIN BEHARREKOAK

118rekin hasten diren telefonoen tarifetan alde haundiak daude

Markatzen den zenbakiaren arabera, deia sei aldiz garestiagoa da

118 aurizkia duen telefono zenbaki-
ra deitzeak sortzen duen gastua hagitik desberdina da auke-
ratzen den zenbakiaren arabera. Merkeenak 11860 –minutua 66 zentimo– eta 11818 –69 zentimo– dira, baina garestienak deitu eta minutu batez telefonoa esekita edukitzeak ia lau euroko gastua eragin dezake sakelean. Hori da, bertzeak bertze, 11832 telefonora deituta gertatzen dena. Markatzen den zenbakiaren arabera, deia bat bertzea baino sei aldiz garestiagoa izan daiteke. Irache Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartek egindako ikerketatik ateratako ondorioak dira.

Telefono zenbaki horien arduradunak deiaren gastua zenbatekoa den erratera behartuak daude. Ha-

ENPRESA	ZENBAKIA	LEHEN MINUTUAREN KOSTUA
	11810	181,50 zentimo
TELE 2	11817	116,20 zentimo
TELEFONICA	11818	69,14 zentimo
TELEFONICA	11822	124,00 zentimo
JAZZTEL	11833	116,00 zentimo
EUSKALTEL	11840	70,30 zentimo
VODAFONE	11855	120,00 zentimo
QDQ	11875	135,00 zentimo
ORANGE	11887	200,00 zentimo
	11888	124,40 zentimo
NAZIOARTEKO TELEFONICA	11825	266,80 zentimo
NAZIOARTEKO INFORMAZIOA	11880	191,00 zentimo
NAZIOARTEKO INFORMAZIOA	11886	232,00 zentimo
JAM TELECOM	11832	395,00 zentimo
NICE	11862	243,00 zentimo
NEOSKY	11881	170,00 zentimo
CENTRAL	11882	140,00 zentimo

**Oharra: Irachek utzitako datuekin osatutako taula.*

la dio legeak. Baina ez dute guztiek egiten. Iracheren arabera, deiaren iraupena kontuan hartu gabe, kobratu beharko lukete telefonia enpresek, prezio finko bat ezarri.


Kontsumitzaileen ztat eskuragarria den telefono zerbitzu publiko bat egon behar

duela dio legeak. Zenbaki hori 11818 zenbakia da, Telefonika konpainiarena. Telefono kabinetatik deitzea doakoa da eta, bertzela, berriz, 69,14 euroko tarifa du minutuko. Baina Iracheren ustetan, herritarrek ez dute telefono zenbaki horren berririk. Gisa berean, nabar-

mentzekoa da, 1004 informazio telefonora deituta, Telefonikak deia 11822ra bideratzen duela (124 zentimo minutua).

Irachek, bere aldetik, arduraz jokatzeke eskatu die kontsumitzaileei, eta agintariei, berriz, kontrol haundiago ezartzeko.

LIBURUAK



Bestea da mundua

Joan Mari IRIGOIEN
ELKAR, 2008

Orbetarrakizeneko trilogia baten lehendabiziko atala da Bestea da mundua. Hasierako parte horren istorioa XIX. eta XX. mendeen artean kokatzen da, industrializazio prozesuarekin batera, eta garai horretan gizarteak jasandako bizimodu zein pentsamolde aldaketetan murgiltzen da. Husetik hasi eta handiki izatera iritsi da Nazario Orbe, XIX. eta XX. mendeen arteko industrializazio-prozesuan, lanaren lanez eta zapaldu beharreko-

ak zapalduz. Baserritik herri-
ra joan eta fabriken munduan barneratu da. Ez da ttikiagoa haren emazte Regina Aldasorok egiten duena, erdaraz ez jakitetik Madrillgo Villalbakon markesen jauregiko konfiantzazko neskame izateraino pasatu baita. Lehenengo eleberrian orberarren familia-ko gurasoen gorabeherak kontatu ondotik, bertze bi eleberrian emanen du Irigoienek jakitera oinordekoen bizitzarekin zer gertatu den.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

BESTAK

ARANO

Azaroaren 11n, San Martin bestak.

AURTITZ

Azaroaren 7tik 11ra, San Martin bestak. Xehetasun gehiago 16. orrialdean

MENDI ATERALDIAK

BERA

Azaroaren 2an, Ibardingo lakura itzulia. 9:30ean lamoteneatik abiatuta. Larun-
Tiki Mendi Taldeak antolatua.

KULTUR EGUNAK

ETXALAR

Urriaren 30ean, Kultur Egunak.

ARANTZA

Urriaren 31tik azaroaren 2ra, Kultur Egunak.

AZOKAK/FERIAK

ARANTZA

Azaroaren 1ean, Baserritarren Eguna goiz osoan.

KONTZERTUAK

ETXALAR

Azaroaren 15ean, Etxeren kontzertua Herriko Ostatuan.

SUNBILLA

Azaroaren 15ean, Giltzarri abesbatzaren emanaldia, 20:30ean Elizan.

HITZALDIAK

BERA

Azaroaren 13an, irakurzaletasuna haurren solasaldia, 18:30ean Liburutegian.

LEKAROZ

Azaroaren 4an, sentsibilizazio hitzaldia, 16:00etan Institutuan.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabekak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. Bittiria kalean 110 m²ko pisua salgai. Prezio ona. ☎670 319380/607 769519/ 948 637347.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, igogailua eta apartakalea. 200.000 euro negoziagarriak. ☎606 586709.

DONEZTEBE. Pisua salgai. 156.000 euro (26.000.000 pta). ☎607 978656.

DONEZTEBE. Etxebizitza independentea salgai, zaharberritua. 2 solairu eta lokal komertziala. Merkatarien Karrika 27. Zuzenean promotoratik. ☎607 978656.

LESAKA. Bittiria plazan pisu mobleztatua eta berritua salgai. Sartzeko prest. Egoera onean. 180.000 euro negoziagarriak. ☎650 405532.

DONEZTEBE. Zazpigarutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, bi bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatua gabea. ☎630 948271.

DONEZTEBE. 100 m²ko pisua salgai Zazpigarutze



Baztango

promoción inmobiliaria

BERA AUKERA: berritutako pisua. Egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta trastelekua. 202.000 euro.

BERA: etxebizitza berria. 2 logela, egongela, sukaldia, trastelekua eta igogailua.

BERA: herrigunean, familia bakarreko etxebizitza, garaje eta lorategiarekin.

BERA: 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta komuna dituen etxebizitza. Igogailua eta trastelekua.

BERA: Legia karrikan, 117 m²ko etxebizitza, zaharberritu beharrekoa. Kanpoaldera begira.

BERA: herrigunean lokal komertziala. Informazio pertsonala.

LESAKA: Bittiria karrikan 100m²ko pisu zoragarria, 100 m²ko atikoarekin.

BERA: familia bakarreko edo bi familialako etxebizitza egiteko lur eremu urbanoa.

INDUSTRIALAKI:

BERA: 368 eta 277 m²ko pabiloi berriak.

ETXALAR: 900 m²ko pabiloi berria.

ETXALAR: lur eremu industrial urbanizatua.

ERRENTAN EMATEKO:

ELIZONDO: zaharberritutako pisua. 2 logela, egongela, sukaldia eta bainugela.

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

Katzonberrri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

auzoan. ☎639 184210.

LESAKA. Lagun batentzako apartamentu berria salgai, mobleztatua. ☎948 637931.

ELIZONDO. 90 m²ko pisu mobleztatua salgai, sartzeko prest. Aukera ona. ☎639 446974.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

ETXALAR. Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎ 943 638131.

BERA. Eztegara pasealekuan 80 m²ko pisua errentan emateko, lehenengo solairuan. 3 logela, komuna eta berogailua. Mobleztatua. ☎616 951535.

ORNOZ-MUGAIRI. Auzune pribatuan 60m²ko behoko solairua errentan emateko, lorategiarekin. 2 logela, sukalde amerikarra, egongela eta bainugela. ☎678 304808.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

LESAKA edo inguruan etxe-

bizitza bat errentan hartuko nuke. ☎667 492616.

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESAKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

Mota guztietako **fruta-ربولak** kimatzen dira. ☎666 283847.

Arropa-dendetarako **jos-tun lanak** egiten dira. ☎688 690585 (Helena).

Oihaneke lanak egiten dira: garbiketarako desbrozadorearekin, lorategietako lanak, kimaketak, alabrezko itxiturak, egurrak puskatu... ☎637 993939.

KONTA BERRIARRI

PSIKOANALISTA

Kontuakarako elkarrekin

☎ 948 272011 (IRUNA)
☎ 948 580975
Jaime Urzúa 42-2 D - ELIZONDO

LANA 301 Eskariak

Emakume bat sukaldari laguntzaile edo etxeko garbiketari lanetan ariko litzateke. Lanaldi osoan edo as-teburuetan. ☎628 767324.

Berako **emakume euskaldun** batek goizez edozein lan eginen luke. ☎630 972189.

Neska euskaldun batek Leizta inguruan lan eginen luke. ☎628 559548.

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean gizaseme batek ostaturen batean lan eginen luke. Urteetako esperientzia. ☎671 798615/663 695410.

Emakume euskaldun batek goizez edota gauetz lan eginen luke Bortzirietan. Adineko jendea zaintzen esperientzia duena. ☎664 545925.

LANA 302 Eskaintzak

BERA. Ibardingo Migel Bentan frantsesa dakien pertsona bat behar da zerbitzari lanetan aritzeko. Eguerdi eta asteburuetan. ☎948 631394.

BAZTAN, MALERREKA eta **BORTZIRIAK** aldean eraikuntzan aritzeko langile ofiziala eta peoia behar dira. Baldintza onak. ☎619 469784.

BERA. Yoan ile-apaindegian ile-apaintzailea behar da. ☎948 630177.

MOTORRA 501 Salerosketak

Kawasaki ZZR 1.100 motorra salgai. Gurpil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. Egoera onean. Prezioa: 2.000 euro. ☎646 769186.

Seat Ibiza 1.400 autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri dutenentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egoki-

tuarekin. ☎699 279940.

Seat Ibiza SDI autoa salgai, 2001ekoa. 104.000 km. 4.000 euro negoziagarriak. ☎618 889953.

Yamaha banshee 350 markako quad bat erosiko nuke. Motorra puskatua edo egoera txarrean. ☎659 019812/699 928540.

Ford Mondeo turbo diesela salgai. 1.700 euro. ☎948 580265.

Opel Astra DTI auto beltza salgai. 16 balbula. Egoera onean. ☎617 144210 (19:30etik aitzinera)

Citroen Xantia salgai, NABC matrikula. ☎651 074865.

Gas-gas trialeko motorra salgai. 2001ekoa. Txasis pro. ☎677 022237

BMW 330d Touring autoa salgai, 2002koa, 127.000 km, nazionala. 16.000 euro. ☎948 630709.

MOTORRA 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Monturako zaldiak salgai. 4 eta 8 urte artekoak. ☎625 704419 /618 206168.

Bi hilabeteko **artzain-zakurkume alemaniar** emea salgai. ☎659 597051.

Oilandak salgai, kolore guzietakoak eta erruten has-teko. ☎648 053679.

DENETARIK 702 Salerosketak

DONEZTEBE. Mahaiak, taburete altuak eta aulkiak salgai. Egoera onean eta berriak. Elkarte eta txokoe-tarako egokiak. Bi neurritakoak. ☎619 913375.

Bigarren eskuko **plastikozko 550 kaxa** salgai. 280 kaxa 80x60x22 neurrikoak eta 270 kaxa 40x60x30 neurrikoak. ☎618 542592.

SANTESTEBAN
Tailerrak
Leizako bidea • DONEZTEBE
Tel: 948 450 282 • 948 450 597

ESKAINZA PAREGABEAK

FURGONETA IA BERRIAK Kangoo Combi 1.5 DCI (2007) Kangoo 4x4 1.9 DCI (2006) Kangoo Grand Volumen 1.5 DCI (2006) Kangoo Express 1.9 D (2003)	TURISMOAK Che II 1.5 DCI (2007) Scenic II 1.5 DCI 105 CV (2007) Scenic II 1.9 DCI 130 CV (2007) Megane II 1.5 DCI 105 CV (2007)
---	--

Aluminiozko 190 apal salgai. Bigarren eskukoak. 12 metroko luzera eta 3 metroko altuera. ☎618 542592.

Zinta eliptikoa salgai, Orbitrek Platirum markakoa. Muskuluak lantzeko ego-

kia. Distantzia, denbora, kontsumitutako kaloriak eta abiadura neurtzen ditu. 120 euro negoziagarriak. ☎948 631017.

Akordeioa salgai, 120 baxukoa. Borsini markakoa. ☎948 630756.

BĒRAKO X. KAFEANTZERKI ZIKLOA

azaroak 7, ortzirala, 22:00etan, Berako Katakua tabernan
"Bob? Nor da Bob?" JON URRAZA

azaroak 14, ortzirala, 22:00etan, Berako Lixoia tabernan
"Euskera sencillaren manifestoa" BIKOTEATROA

azaroak 23, igandea, 19:00etan, Berako "Lagun Haundiak" elkartearen
"Grebak gaude" LAHRIKUN ANTZERKI TALDEA

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Zubietako **MIRARI IRIBARREN** **JUANIKORENAK** azaroaren 5ean 2 urte beteko ditu. Zorionak gure xaguxuari! Donetzte eta Zubietako familia, berexiki Aimar.



GORETTI ORDOKI **AGIRRE** beratarrek 9 urte bete ditu urriaren 26an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.



GIORGI BERTIZ **GIORGIENEK** urtea bete du urriaren 16an. Zorionak Etxalarko atautxi-amatxi, Berako diado-ababa, osaba-izeba eta Aimar lehengusuaren partetik.



Urdazubiko bi barrabas hauek urriaren 7an eta 10ean 6 eta 4 urte bete dituzte. Zorionak **ZUHAITZ** eta **PABLO** Berniren partetik, eta segi niri bisitak egiten!



Irungo **MADDI BAKERO** **ARAKAMAK** urriaren 27an 4 urte bete ditu. Zorionak zure ahizpa Nerearen partetik eta txokolatetzko lau muxu.



UNAI eta **JOANA GOIKOETXEA** beratarrek 2 eta 5 urte bete dituzte urriaren 16an eta 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



XUBAN GASTEARENA **IRISARRIK** 3 urte beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak pottolo! Mila muxu Ezkura eta Etxalarko familia guztiaren partetik.



ANE YANCIK 5 urte beteko ditu azaroaren 6an. Mila kilo zorion zuretzat! Igantzik familia guztiaren partetik. Maite zaitugu preziosa.



ANE YANCIK urteak beteko ditu azaroaren 6an. Zorionak zure bostgarren urtebetetzearen Usategietako familia guztiaren partetik. Maite zaitugu!



NAHIA eta **OIHAN PIKABEA** **ELIA** beratarrek 2 urte beteko dituzte azaroaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat Berako eta Iruñeko familia guztiaren partetik.



Berako **OIHAN** eta **NAHIA**. Zorionak gure pottolo eta sorgin tikiari euren bigarren urtebetetzean. Muxuak ama eta aitaren partetik.



XUBAN LARRETXEA **ALZUGARAİK** 11 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Goizuetako **MIKEL** eta **AITOR** **AGILARREK** urriaren 24an eta 28an urteak bete dituzte. Zorionak etxe-koen partetik.



UNAX ARBELAZ, **GARAXI AZPIROZ** eta **JUNE AZPIROZ** igantziarrek urriaren 21ean, 27an eta 30ean 5, 5 eta 7 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Leitzako Goiko Soroko **JOSE MIGUEL** eta **PAKITAK** 91 eta 84 urte beteko dituzte azaroaren 3an eta 15ean. Zorionak familia guztiaren partetik eta jarrai dezazuela umore eta osasun bikain horrekin. Bazkari goxoa pres-tatu, zuek dakizun bezala.



NAROA GARBISU **ETXABIDE** lesakarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 10ean. Zorionak eta muso haundi bat familia guztiaren partetik.



MIKEL **JUANOTE** **NA** doneztebarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama, Joseba eta familia guztiaren partetik.





Behetik

Añorgatxiki 11 behea
20018 DONOSTIA
Tel: 943 368 781
Fax: 943 368 781
Mug. 671 073 888
behetik@behetik.com

PLATAFORMA JASOTZAILEAK



EUSKAL TONBOLA

euskaraz
tui

Furgoneta bat nahi?
Eta LCD telebistak? GPSak?
JOKA EZAZU EUSKAL TONBOLAN!

euskaltonbola@kontseilua.org



1€

Nafarroa osoko tabernetan salgai



Lur

azaroak **1** larunbata


JALISKOBAND

00:45 9€

azaroak **22** larunbata



Antolatzaileak:



esne peltza
made in euskal herria

00:30 9€ Salmenta puntuak: Antxitonea eta Lur Aretoko takilla

ASTEBURURO GIRO HOBERENA!!
MUSIKA, BIDEOAK, SMSak...

ANIMATU!!
ETA BIHUR ZAITEZ LURTARRA!!

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Heineken



ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK